


# ttüpi-ttapa

1995eko martxoak 30 • 155. zenbakia

Elkarrizketa

**Juantxo BARRIOLA:**

**«Lehen, egun batean hitzegin eta hurrengoan fabrikan ari zinen»**



**DATORREN URTEAN  
ALDAKETAK ESKOLETAN**



# BAZTAN IKASTOLA



**25 urtez**

**euskara maitatzen**

**bultzatzen**

**ibiltzen**

**indartzen**

**ikaskuntza hobetzen**

**berritzen**

**gaurkotzen**

**hezkuntza osoa ematen**



## BERA eta LESAKAKO IKASTOLAK

**MATRIKULA  
EPEA  
ZABALIK**

**HAUR HEZKUNTZA**

**LEHEN HEZKUNTZA**

**DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA (DBH)**



**LABIAGA IKASTOLA / © 630172**



**TANTIRUMAIRU IKASTOLA / © 630172**



## DATUAK

❖ *Juantxo Barriola 60 urteko leitzarra da, ezkondua eta hiru seme-alaben aita.*

❖ *Leitzako Sarrio lantegitik jubilatuta berria da aurre-jubilazioa dela eta.*

❖ *Oso gustora dago gaur egun duen bizi kalitatearekin.*

❖ *Gaur egun gazte jendeak duen langabezi mailak kezka sortzen dio.*

## Juantxo BARRIOLA:

# «Lehen, egun batean hitzegin eta hurrengoan fabrikari zinen»

### ZENBAT URTEREKIN HASI ZINEN LANEAN?

Hogeita hamabi urte nituen Leitzeko fabrikari sartu nintzenean. Lehendik mendianetan ibilia nintzen inguru hauetan eta baita Frantzia ere beste zazpi urtez.

### BERAZ, ZENBAT URTEZ ARITU ZARA SARRION?

1967an sartu eta hogeitazortzi urte eman ditut bertan.

### ZENBAT LANGILE ZINETEN ORDUAN?


Ni hasi nintzenean 2.000 pasatuak ginen eta jubilatuta nintzenean 1.000tik behera. Orain ez dakit zenbat dauden, baina gero eta gutxiago, hori seguru.

### ZEIN KONDIZIOTAN JUBILATU ZINEN?

Ba, lau milioi pezetan golpe batean hartu nituen, bi urteko jornal osoa 'paro'aren bitartez, eta gero jubilazioa. Ekainean hasiko naiz jubilazioa kobratzen eta pixkat jeitsi egingen da soldata.

### KONFORME GELDITU ZINEN KONDIZIO HORIEKIN?

Oso konforme, badira batzuk hirurogeita hiru urte bete arte utzi nahi ez dutenak, gero jubilazioa txikiagoa



izanen dutelako, baina dirua ez da dena, nik osasuna badut eta orain nahi dudana egiten dut.

### LEHEN ORAIN BAINO ERREXAGO KONTRATATZEN ZEN JENDEA?

Bai, hitz egin eta hurrengo egunean lanean hasten zinen, gauza ba-

tean ez bazen bestean.

### ZERGATIK USTE Duzu ETORRI DELA EGUNGO EGOERA?

Lehen jende gehiegixko zegoen eta askotan denbora pasa egoten ginen. Gero lana eta langileak egokitu ziren eta martxa oinarritzen ginen. Orain berriaz, gehiegixkoa alderantziz dela dirudi, jende gutxi baitago makina guztiak gobernatzeko.

### ZER PROPOSATUKO ZENUKE LANPOSTU BERRIAK SORTZEKO?

Jubilatzeko adina denentzat berdina izatea. Pixka bat aurreratu, eta honela, jende gaztea sartuko litzateke.

### ETA JUBILATU ONDOTIK, ZERTAN PAsATZEN DUZU EGUNA?

Erregeen inbiriari ez dut. Nik nahi dudana tipora ibiltzen naiz, etxea zaindu, txerriak, oilaskoak, baratzea, beti izaten da zer egina... gustora gainera, osasuna ona baitut eta nahi dudana horretan aritzen naiz.

» *Lanpostu berriak sortzeko, erretiratzeko adina denentzat berdina izatea proposatuko nuke. Pixka bat aurreratu, eta honela, jende gaztea sartuko litzateke.* »



**Nafarroan, heldu den ikasturtean sartuko da indarrean LOGSEren Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH). Horixe da segurua den gauza bakarrenetakoa. Izan ere, guzi honen inguruan dagoen informazio faltaz kejuka bait dabilta irakasle, guraso eta ikastetxeak.**

TESTUA :  
JOXEMANUEL IRIGOIEN  
RAMON APEZETXEA




# DATORREN IKASTURTEAN HASIKO DA HEZKUNTZA ERREFORMA

**d**atorren urtean hasiko dira aldaketak 6. maila egin dutenentzat. Halaxe erabakia dute Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Saileko buruzagiek. Horrek aldaketa dexente sortuko ditu eskola munduan. Izan ere, Derrigorrezko ikasketak hamasei urteak arte luzatuko dira, orain arte baino bi urte gehiago. Orain arte, 14 urtean erabaki behar izaten zuten hurrengo urtetan zer ikasi; batzuk BBB-BUP, bertze batzuk IEE-REM eta bertze batzuk LH1-FP1. Aurrerantzean, 16 urtetan erabakiko dute Batxilergoa eta Lanbide Heziketaren artean zein bide hartu.

**AURREMATRIKULAZIO EPEA LUZATU DA**

Dagoen giro nahaspilatu honen ondorioz, Hezkuntza Saileko agintariek aurrematrikulazio epea luzatzea erabaki dute. Hasiera batean aurrematrikulazio epea martxoaren 21etik apirilaren 5a bitarte izatea pentsatua bazuten ere, oposizio alderdiek epe hori apirilaren hondar aldera arte luzatzera behartu zioten Parlamentuan Javier Markotegi Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Sailburuari. Aurrematrikulazio honek unibertsitatekoak ez diren ikasketa guzietan eragiten die. Kontutan hartu be-



**Ramon APEZETXEA**  
San Martin Eskolako zuzend.

«Espero dut zona hau gutxiagora ez joatea behar ditugun modulo eta ofiziotan»

■ **Zer ekarriko du Erreforma?**

□ Hemendik urte batzutura ikusi beharko da. Irakas-kuntza munduan beti errebisatzen ibili beharra izaten dugu, urtero etortzen diren ikasle berriei zer eta nola eman ikusiz. Kalidadea eta bizitzarako prestakuntza hobetuko lortzeko, gauza asko kontutan hartu behar dira. Ez da nahikoa izena, e-  
struktura eta ikasgaien edu-

kiak aldatzearekin. Ikasle-aren interesa eta kapazidadea, beraiekin lan egiterakoan erabiltzen diren forma eta metodoak, materialak, ongi funtzionatzeko dagoen dirua, etabar... guzi hoiek nabaritu egiten dira emaitzetan.

■ **Zein egoeratan geldituko dira Lanbide Eskolak?**

□ Oraindik arraz zehaztu gabe dago toki bakotxean zer emanen den. Espero dut zo-

na hau gutxiagora ez joatea. Hori gertatzen ahal baita ez baldin badira hemengo bizimoduarekin lotura duten nahiko modulo eta ofizio jar-tzen, bai kalidadean eta bai kantidadean aldetik.

■ **Bertze datu aipagarrien bat?**

□ Datorren urtean IEE-REM orain dagoen tokitan segituko du, Batxilergoak Lekarozen eta Oronoz-Mugairin Lanbide Eskolak.



har da, Nafarroan bertze tokitan baino urte bat lehenago ezarriko dela LOGSEren Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH), eta ezarpen prozesua burutzen ari den manerarekin, irakaskuntza munduko sektore desberdina kexu ageri direla guzi horren inguruan dagoen informazio faltarekin. Egoera eta giro honetan, beraz, ezin gauza gehiegirik argitu.

### ALDAKETAK

#### HEZKUNTZA SISTEMAN

Hezkuntza sistemaren erreforma honekin gauza pila aldatzeko asmoa dago; bertzeak bertze, ikastetxe arteko sare berriak sortuko dira (hauen barne egituraketa eta funtzionamendua aldatuz), Eskola Barruti edo distrito berriak antolatuz, irakasleen lantalde berriak osatuz, hezkuntza ziklo, etapa eta programa berriak indarrean jarritz, derrigorrezko hezkuntza bi urtez luzatuko da, Irakaskuntza Ertaina goitik behera berrantolatuko da... Kontutan hartu behar da erreforma prozesu hau duela lau urte hasi zela garatzen LOGSEarekin batera.

#### ZENTRO BAKOITZEKO ESPEZIALIDADEAK

Momentu honetan dagoen informazioaren arabera, datorren ikasturtean IEE-REM gaur egun dagoen ikastetxe beretan segituko da ematen; BBB-BUP Lekarozko Institutuan... Dena dela, ez dago arras zehaztua ikastetxe bakoitzean zein batxilergo eta zein modulo emanen diren datorren urtean.

Goizueta eta Arantzako eskoletan 14 urteak arte segituko dute ematen, eta Elizondoko kontzentrazioan 12 urteak arte. Baztanen 12-16 urte bitartekoek Lekarozen ikasiko dute eta bazkaltzera Elizondoko kontzentrazioa joanen dira.

#### ETA IKASTOLAK?

Itxura denez, Baztan ikastolan Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza emanen da hemendik aitzinera (3-12 urteak). Bortzirietan, ordea, as-

ZONAKO ESKOLA MAPAREN EGOERA PROBISIONALA				
<b>BAZTANALDEA</b>				<b>BAZTAN IKASTOLA</b>
<b>ESKOLA PUBLIKOAK</b>	<b>HERRIAN</b>	<b>LEKAROZ</b>	Elizondoko Lanbide Eskolan Lekarozko Institutuan Oronozko San Martin Eskolan	
Almandoz	3-12 urteak	12-16 urteak	16-18 urteak	
Amaiur	3-12 urteak	12-16 urteak	16-18 urteak	
Arizkun	3-12 urteak	12-16 urteak	16-18 urteak	
Arraioz	3-12 urteak	12-16 urteak	16-18 urteak	
Azpilkueta	3-12 urteak	12-16 urteak	16-18 urteak	
Elizondo	3-12 urteak	12-16 urteak	16-18 urteak	
Erratzu	3-12 urteak	12-16 urteak	16-18 urteak	
Gartzain	3-12 urteak	12-16 urteak	16-18 urteak	
Irurita	3-12 urteak	12-16 urteak	16-18 urteak	
Irurita-Baigorri	3-12 urteak	12-16 urteak	16-18 urteak	
Oronoz	3-12 urteak	12-16 urteak	16-18 urteak	
Ziga	3-12 urteak	12-16 urteak	16-18 urteak	
Urdazubi	3-12 urteak	12-16 urteak	16-18 urteak	
Zugarramurdi	3-12 urteak	12-16 urteak	16-18 urteak	
Heldu den urtean 3-12 urteak arte				
<b>BORTZIRIAK</b>				
<b>ESKOLA PUBLIKOAK</b>	<b>HERRIAN</b>	Berako Toki Ona Institutuan		
Arantza	3-14 urteak	14-18 urteak		
Bera	3-12 urteak	12-18 urteak		
Etxalar	3-12 urteak	12-18 urteak		
Igantzi	3-12 urteak	12-18 urteak		
Lesaka	3-12 urteak	12-18 urteak		
<b>BERA-LESAKAKO IKASTOLAK</b>				
	<b>HERRIAN</b>	Berako Ikastolan		
Bera	3-16 urteak (*)			
Lesaka	3-12 urteak	12-16 urteak (*)		
(*) Nafarroako Gobernuak behin betiko erabakiaren zain				
<b>BERAKO JESUSEN BIHOTZA IKASTETXEA</b>				
Heldu den urtean 3-12 urteak arte				
<b>LEITZALDEA</b>				
<b>ESKOLAK</b>	<b>HERRIAN</b>	<b>LEITZAN</b>		
Areso	3-12 urteak	12-18 urteak		
Arano	3-14 urteak (*)			
Ezkurra	3-12 urteak	12-18 urteak		
Goizueta	3-14 urteak	14-18 urteak (**)		
Leitza	3-18 urteak			
(*) Aranotik Goizuetako eskolara joaten dira				
(**) Gurasoek nahiago dute euren seme-alabak Hernanira joan daitezen				
<b>MALERREKA</b>				
<b>ESKOLA PUBLIKOAK</b>	<b>HERRIAN</b>	<b>DONEZTEBE</b>	<b>ELIZONDO BERA</b>	
			<b>LEKAROZ</b>	
			<b>ORONAZ</b>	
Beintza-Labaien	3-12 urteak	12-16 urteak	16-18 urteak	
Donamaria		3-16 urteak	16-18 urteak	
Doneztebe	3-16 urteak		16-18 urteak	
Elgorriaga		3-16 urteak	16-18 urteak	
Eratsun	3-12 urteak	12-16 urteak	16-18 urteak	
Ituren	3-12 urteak	12-16 urteak	16-18 urteak	
Legasa	3-12 urteak	12-16 urteak	16-18 urteak	
Narbarte	3-12 urteak	12-16 urteak	16-18 urteak	
Oitz		3-16 urteak	16-18 urteak	
Saldias	3-12 urteak	12-16 urteak	16-18 urteak	
Sunbilla	3-12 urteak	12-16 urteak	16-18 urteak	
Urrotz		3-16 urteak	16-18 urteak	
Zubieta	3-12 urteak	12-16 urteak	16-18 urteak	

paldiko kontua da Labiaga eta Tantirumairu ikastolek DBH eman ahal izateko agertua duten intentzioa. Zentzu horretan, legez ezarritako epeetan baimen-eskariak sartuak dituzte Nafarroako Gobernuan. Hezkuntza Departamentuak bere alde-

tik, ez du oraindik ezagutze-  
ra eman behin betiko erabakia eta tramiteak aitzinera segitzen dute.

#### AZKEN MOMENTUKO GORA-BEHERAK

Azken hilabeteotan, era guzietako arazo eta protestak sortu dira han eta hemen.

Goizuetan, adibidez, bilera izan zuten eskola-inspektorea eta gurasoen artean. DBHaren azken bi urteak Leitzan egitea nahi du Hezkuntza Departamentuak. Goizuetako gurasoek, ordea, nahiago dute euren seme-alabak Hernanira bidali. ■



LEGE GORDAILUA: NA-1324/85  
FRANKEO ITUNDUA: 34/79  
TIRADA: 5.950 ALE

ARGITARATZAILEA: TTIPI-TTAPA KE  
HERRIKO ETXeko PLAZA, 1  
31780 BERA  
TFNOA: 63 11 88  
FAXA: 63 12 91

**Zuzendaria:** Joxemanuel Iri-  
goien. **Publizitatea:** Miren Kar-  
mele Tolosa. **Erredakzioa:** Aitor  
Arozena, Joxemanuel Irigoien.  
**Administrazioa:** Amaia Goia.  
**Erredakzio taldea:** Pello Apez-  
etxea, Juainas Paul, Kristina  
Boan, Bittori Telletxea.  
**Berriemaileak:** Joseba Azpiroz,  
Esteban Arozena, Juana Mari  
Saizar, Ainhoa Mutuberria, Iban  
Sasi, Txema Aldabe, Pello  
Etxegia, Txema Urroz, Patxi  
Dtxandorena, Daniel Martirena,  
Xabiel Maia, Josune Etxebeste,  
Pablo Mendiburu, Joseba  
Garabide, Alizia Olaizola, Margari  
Etxenike, Koro Irazoki, Mixel  
Gerendiain, Jacqueline, Elixabet  
Turria, Garbiñe Maiz, Oskar  
Txoperena, Alberto Sansiñena,  
Pello Apezetxea, Aitor Arozena,  
Kristina Boan. **Kolaboratzaileak:**  
EHNE Nafarroa, Patxi Lasa, Mikel  
Bezunartea, Joxe Javier Etxe-  
berria, Arantxa Zabala...

**primategia:** Gertu (Oñati).  
**ttipi-ttapak** ez du bere gain har-  
zen derrigorrez, aldizkarian adie-  
zazitako erranen eta eritzien eran-  
zuzikizunik.

**Erakunde Laguntzaileak:** Bera,  
Leitza, Goizueta, Areso, Baztan,  
Urdazubi, Zugarramurdi eta  
Sarako udalak, Bortziritako  
Euskara Mankomunitatea,  
Malerrekako Zerbitzu Mankomu-  
nitatea...



Aldizkari honek Nafarroako  
Gobernuaren laguntza jaso du

## GAURKOTASUNeko GAIA

### Epaimahaiaren lana bertsolarien txapelketan

#### Bakoitxaren iritzia baino fidagarriagoa da epaimahaiarena



Mikel TABERNA  
Gai-jartzailea

Bertsoa epaitze-ko 'bakar-bakarrik' honako hauek hartu behar dira kontutan: gaiari lotzen zaion. zer arrazoi ematen duen, neurria, errima, hizkuntzaren erabilera zuzena, kantatzen hasteko ematen den denbora,...

Bat-batean ari diren bertsolarien lana bat-batean neurtu behar dute epaileek, erran ditudan gauza horien guzieren batuketara jotzea egin behar... Lan 'erraxa'! Burua nekatu beharrik ez! 'Iruditu' orokorra hartu eta huraxe, tak! puntuazioa.

Bertsolariek berek eta entzuleek ere egiten dute euren juzkua. Bat-bateko inpresio hori zuzena edo okerra izan den, gero ageri izaten da bertsoa patxadan aditu eta paperera aldatzen denean.

Hondarreko, epaileen iritzia agertzen da emaitzetan eta entzuleena saio ondoko solasetan. Ez dut dudarik egiten, halere, gutako bakoitxak izaten ahal duguna baino hagitzez fidagarriagoa dela epaimahai-ko guzieren artean banaz-bertze ateratzen den hori (Nafarroan aurten 8 ari dira).

#### Erizpide berdinak izan beharko lituzkete epaile guztiek



Xabier SILVEIRA  
Lesakako bertsolaria

Aurten, bertze urtetan bezala (iaz adibidez) ez da fin ibili epaimahaia. Batzuen bertso onak bertze batzuen bertso onak baino puntu gehiago lortzen dituzte; eta bertso txarrak ez dira hain txarrak epaimahaikideek begiko duten bertsolari batek bota ezkeru.

Honetaz gain, epaile guztiek erizpide berdinak izan beharko zituzten, eta ez batek potu bati (zerbait paratzeagatik) hiru puntu kendu eta bertze batek puntu bat.

Azkenik, nahiz eta bi epaimahaikide gazte egon, honek ez ditu bertzeak gaztetzen, eta gazteen bertsoak ez dituzte beti ulertzen.

Denok dakigun bezala, bertsoak epaitzea zaila da dudarik gabe, baina ea bertze batean txistuak ez aditzeko moduko puntuazio batzuk entzuten ditugun.

#### Epaimahaiakoek ongi betetzen dute beren lana



Eugenia BARRIOLA  
Leitzaiko bertsolaria

Egia esan, ez gara kanporaketa guzi-guzitan egonak, baina bai Donezteben egin zenean. Dena dela, nire ustez, epaimahaiakoek generalian ongi betetzen dute beren lana, eta ez dut ikusten horinola faboritismoa.

Entzule gisa joaten garen artean, normala da batentzat bertsolari bat bestea baino gustokoagoa izatea. Batzuentzat berdekeria eta parrarik gabeko bertsoak ez dira hain onak, beste batentzat berriz, bestelako bertsoak ere estimatzen dituzte. Sentidu horretan, normala da entzulearen ikuspuntutik klase guzitako eritziak izatea.

Honekin batera, kontutan hartu behar da epaimahaiak bapatean baloratu behar duela bota den bertsoa, eta alde horretatik, bertsolaria bera ez dela egokiena berotasun horretan ondokoaren lana baloratzeke. Nire ustez balorazio hoiek berotasun horretatik kanpo egin beharko zituzten, hotsago. Apaltasuna estimatzen den kalitatea izaten da.



MATXINBELTZENEa

LESAKA

Arretxea, 22 • Tel.: 62 75 73, Faxa: 62 75 53 • LESAKA

KATTU  
OSTATUA  
JATETXEA



GRUPO  
ZURICH



A SEGURO  
OROKORRAK

Itzea, 4 — BERA  
☎ 63 07 63



BOTA BERTSOA

IRAKURLEAK MINTZO



**Udaberriko lehen loreari**

**Alaitz REKONDO**  
Bortzirietako Bertso Eskola  
Doinua: Udaberrian zelaioak  
lozez...

*Negu iluna atzean utziz  
hemen da udaberria  
txori txikien txorrotxioa  
ez dugu gauza larria  
soro berdetan ikus daiteke  
jadanik lore berria  
kolore argi eta alaietz  
jantzirik Euskal Herria.*

*Pinpilipauxak lorerik lore  
hauze da gauza edarra  
mendi guztiak berdeak eta  
eguzkiaren indarra  
fruitu berriez apaindurikan  
basoko zuhaitz zaharra  
Euskadin ere udaberria  
iristea da beharra.*

**Oskar Goñirekin elkartasuna**

Gure kidea den Oskar Goñiren atxilotze eta espetxeratzea dela eta, Berako suhiltzaile bolondresak zera adierazi nahi dugu:

1.—Oskarren atxiloteta eta espetxeratzea salatzen dugu bai egin den moduagatik (bera aurkezteko aukerarik eman gabe bila etorri ziren), eta baita hori justifikatzeko erabilitako arrazoiagatik ere (intsumitua izatea).

Uste dugu intsumitua izatea ez dela arrazoi inore espetxera eramateko, baikoitzak egin ahal dezakeen aukera baizik.

2.—Oskarri gure elkartasuna adierazten diogu eta laister gurekin egotea opa diogu.

BERAKO SUHILTZAILE  
BOLONDRESAK



**Aranoar eta Goizuetar guztiei**

Zortzigarren mailako ikasleok zuengana zuzentzen gara, zeren dakizuen bezala, horribili gara gure kontenedoreak hartuta herrian barrena papera biltzen. Hau dena egin dugu 8. mailako ikasbaldaiarako diru pixtak

irabazteko eta... birtziklatu ahal zitekeen gaia birtziklatzeko bidean jarri dugu, horrela, naturari mesede egiten diogu zuhaitz gutxiago moztuz, aprobetxa daitekeen zerbait aprobetxatuz,...

Alde horretatik, Arano eta Goizuetar guztiak eskertu nahi genituzke gurekin parte hartu dutelako ekintza honetan, papera kontenedoretara boteaz, ardura hartuz etabar.

Udalei proposatzen diegu kontenedore urdin batzuk jartzea, ohiturak jarrai dezan eta beste zaborrekin egiten den bezala birtziklatu, adibidez: pilak, beirak, zaborrak...

Berritikan ere eskerrak emanez agurtzen gara.

GOIZUETAKO 8. MAILAKO  
IKASLEAK



**Zigorra arau bihurtuta**

Bonxe, A Coruña, Jerez, Navalcarnero... espetxetako egoerak edota preso batzuk pairatzen duten eraso iraunkorrak argiro adierazten dute ezartzen zaizkien bizi baldintzen gogortasuna. Tratamendu horren oinarrian dispersioa dago,

presoen sakabanaketa Euskal Herriatik urrun dauden espetxeetatik, hain zuzen. Neurri eta jarrera arbitrario eta bortitzak egunez egun errepikatzen dira dispersioari esker, oinarritzko eskubideen bortxaketa izkutatu: jipoi eta eraso fisikoak, isolamendua, irainak, inkomunikazioa, trasladoak, osasun asistentzia eza, masifikazioa, mehatxuak...

Logika etiko legal eta giza-tiarraren aurka, Ajuria Eneako Itunako alderdi politikoei jarraitzen dute dispersioa bultzatzen efikazia politikoa presoen tratamendurako erizpide bezala erabiliz.

Bonxe, A Coruña eta Jerez-en euskal presoak politikoak 'txapeatuak' daude oinarritzko eskubideak aldarrikatzen. Navalcameron duela gutti arte gose greban egonak dira. Kalean ere gure presoen eskubideak defendatu behar ditugu, adi egon zure herriko konkobokatorietara, apirilaren 1ean 12 orduko enkarterladak, apirilaren 8an Bonxeko gartzelerako martxa.

BAZTAN, MALERREKA, BORTZIRIAK  
ETA LEITZALDEKO AMNISTIAREN AL-  
DEKO BATZORDEAK



**ZALDO OSTATUAK**

**LESAKA**

**ANSONEA**

**JATETXEA**

*Kontsultatu menu bereziak*

Foruen Plaza 1, Tfnoa: 630072 • **BERA**

**LANCHAS**

- Parketak - Tarimak
- Kutxillatzea eta bernizatzeak
- Estaldura Orokorrak

Bera ☎ 630735  
Irun ☎ (943) 622305





EGUNKARIA 95-III-16

«Nik nahiago dut telebista platoan egin exhibizioa herriko plazetan baino, psikikoki lasaiago zaude ezagunik ez duzulako inguruan».

**Kristina SARALEGI**  
Leitzako aizkolaria  
Egunkaria 95-III-16

«Gaur egun zona honetan dauden turismo etxeen erdiak baino gehiagok ez dute deus ikusirik nekazaritzarekin».

**Mikel PETIRENA**  
EHNE-Nafarroako lehendakaria  
Egin 95-III-23

◆ **Zenbat denbora daramakizu dendarri lanetan?**

- ❖ Lau urte.
- ◆ **Zer dela eta lanbide hau?**
- ❖ Ikasketak akitu ondotik ez nuen lanik aurkitzen eta denda irekitzea erabaki nuen.

◆ **Kirol bat?**

- ❖ Eskubaloia eta eskia.

◆ **Zer egiten duzu asti librean?**

- ❖ Mendira edo zinera joaten naiz.

◆ **Karretera dela eta, oraingo pakea edo lehengo burrunba?**

- ❖ Oraingo pakea, dudarik gabe!

◆ **Zein da urte sasoirik onena?**

- ❖ Negua.

◆ **Lagunekin egoteko Sunbilla edo Doneztebe?**

- ❖ Sunbillan lasaiago.

◆ **Zakurrak gustoko dituzu?**

- ❖ Bai, maitasuna eta konpainia egiten dute eta ez dute deus ere eskatzen.

◆ **Zein eski estazio duzu gustokoena?**


- ❖ Baqueira.

◆ **Eskiatzerakoan botatzen zaituztenean zer egiten duzu?**

- ❖ Irri.

◆ **Zein da irakurri duzun azken liburua?**

- ❖ Tuareg.

**Nieves BIURRARENA**Sunbillako 'Bibi'  
janaridendakoa

# TOKI ONA INSTITUTUA

1995-96 ikasturterako aurreinskripzioa  
Martxoaren 20tik Apirilaren 26ra.

## ESKEMINTZA

**DBHrako 1. kurtsoa (ESO-LOGSE)**

6. maila egin dutenentzat

**DBHrako 2. kurtsoa (ESO-LOGSE)**

7. maila egin dutenentzat

**IEE (REM)**

8. maila egin dutenentzat

**Giza-Batxilergoa**

IEE gainditu dutenentzat

**Batxilergo Tekniko Industriala**

IEE gainditu dutenentzat

**Lanbide Heziketa Ertaina (Modulo II)**

IEE gainditu dutenentzat

**Linea-Mantenimendua**

**Goi mailako Lanbide Heziketa (Modulo III)**

Batxiler Teknikoa gainditu

**Makina eta Sistema Automatizatuen Mantenimendua**

dutenentzat

**Heziketa Berezia**

**Informazioa: 630411 telefonoan**





# 1a 5 milioiko aurrekontua izanen da kulturarako

Lore Jokoen eta organoaren mendeurrena izanen dira aurtengo ekitaldi nagusiak

KRISTINA BOAN

Berako Udal Kultur Batzordeak aurtengo kultur egitaraua pres-tatu du eta 4.945.000 pezetako aurrekontua izanen du.

Ekitaldi aipagarrien artean, erran behar da aurtin beteko direla Lore Jokoen eta organoaren mendeurrenak. Lore Jokoa ekainaren 16, 17 eta 18an ospatuko dira eta horren inguruan bertsoak, literatur lehiaketa, dantzariak, etabar izanen dira, duela 100 urteko egitaraua errepikatuz. Organoaren mendeurrenaren egitaraua zehaztu ga-be dago oraindik.

Hilabete honetan, apirilaren 23an, Liburuaren Eguna izanen da eta Lamixine antzerki taldeak jendur-reko irakurketa anto-latu du. Maiatzaren 7an berriz, bertso saioa izanen da. Gainerako ekitaldien berri urtean zehar emanen dugu.



Emakumearen Astearen egindako afarian giro ederra izan zen

## Herriko hiru taldek parte hartuko dute Nafarroako haur kantari lehiaketan

Nafarroako haur kantari lehiaketan Berako lau taldek eta bakarlarari batek parte hartuko dute. Horietako bi Labiaga ikastolatik joanen dira, gaztetxo mailan (5. mailatik goiti) Attonarri taldea eta ttikien mailan (3. eta 5. maila artean) Ttipittarri taldea. Begoña Rudi irakasle-

ak prestatu ditu bi talde hauek eta Nekane Lasaga akordeoilariarekin kantatuko dute. Attonarri taldeak 'Arboletan den ederrera' kanta abestuko du eta Ttipittarrik 'Andre Emili'. Bi kantari hauek inguru honetakoak dira, lehenbizikoa Iruritakoa eta bigarrena Etxalarkoa.

'Jesusen Bihotza' ikastetxetik bertze bi taldek parte hartuko dute. Ttikien mailan Erentzu taldea arituko da eta gaztetxo mailan Okalarre taldea arituko da. Bi taldeen izenak Berako mendi-nak dira. Hauetaz gain, bakarlarari bezala Estibaliz Agirrek parte hartuko du.

ttipi-flash

### 'Sorotan Bele' Kultur Etxean

Apirilaren 8an, arratsko 11,30etatik aitzinera 'Sorotan Bele' taldearen kontzertua izanen da Kultur Etxean. Sarrerak 500 pezeta balioko du.

### Emakumeen bilera

Uxua emakume taldeak apirilaren 3an arratsaldeko 7etan Herriko Etxean izanen du bere hurrengo bilera. Talde honek hagitx positiboki baloratu du Emakumearen Astea, batez ere ekitaldietara hurbildu direnen partaidetza.

### Ikastolako batzorde berria

Josu Iriondo izanen da Labiaga ikastolako batzordeko lehendakari berria.

### Gure Txokoako

batzar orokorra apirilaren 7an ospatuko da. Lehenengo deialdia 7,30etan izanen da eta bigarrena 8etan. Aurrekontuaz gain, junta berritza izanen da premiazko gaia, lehendakariak eta idazkariak kargua utziko baitute.

**BOAN**  
TAILERRA  
CITROEN Banatzailea

AUTO BERRIEN  
ERAKUSKETA ETA SALMENTA

☎ 63 06 23 • BERA

**OKANE**

HARATEGIA • URDAITEGIA

Kanttonberri 4, Tfnoa: 63 00 18 • BERA

**KIROLAK ZELA**

Altzate 6, ☎ 63 05 98  
BERA

**ZALAIN**  
J A T E T X E A

EGUNEKO MENUA ETA KARTA

Zalain Auzoa  
☎ 63 09 67  
BERA

**Boda eta banketeak ematen dira**

*Errekalde ostatua*

Ortiziraletan, 10etan Mus Txapelketak

Tfnoa: 630259 - BERA



**Lesaka**

# III. Herri laisterketa apirilaren 9an izanen da

Batzoki elkarteak antolatutako proba maila ezberdinetan burutuko da

**AITOR AROZENA**

Apirilaren 9an burutuko da Lesakako III. Herri Laisterketa, parte hartu nahi duen edonorri zabaldua izanen den proba. Herri laisterketa hau Batzoki elkarteak antolatu du, Caja Ruralen babesarekin eta Herriko Etxearen laguntzaz.

Partehartzea dohainik izanen da eta izena laisterketa hasi baino ordu t'erdi lehenago ematen ahal da. Lehendabiziko proba 10etan hasiko da (aurrebjainak) eta hortik aitzinera plaza inguruan mailaz maila ateriko dira ttikiak. Proba nagusia berriaz, 12,30ak aldera hasiko da eta zirkuito luzeagoa izanen du. Senior eta heldu mailako gizonzkoek 8 kilometro egin beharko dituzte eta emakumezkoek, junior mailako neska-mutilek bezala, seina kilometroko laisterketa burutu beharko dute.



Jendearen partehartze handia espero da aurtengo edizioan ere

## Arkupe elkarteak Pilotarien Batzarraren hamargarren bilera antolatuko du aurten

Pilotarien Batzarra elkarteak, bere urteroko bilera Lesakan eginen du aurten ekainaren 3 eta 4ean eta horren antolaketan arituko da herriko Arkupe pilotazaleen elkartea. Honela erabaki zen Arkupe elkarteko azken batzarrean eta dagoeneko 600.000 pezetako dirulaguntza

eman du horretarako Herriko Etxeak.

Honetaz gain, Arkuperen batzarrak zoriok eman zizkion Jesus M<sup>a</sup> Almandoz pilotariari, elkartearen izenean Espainiako Openaren txapelduna izan baita. Joan den urteko ekitaldien eta aurteno aurrekontuaren berri ere eman zen. Bazkide

berriak egiteko dagoen eskaria dela eta, 15 sozio gehiago egiteko aukera emanen du elkarteak, estatutoak aldatuz horretarako.

Zuzendaritza batzordeari dagokionez, Justo Agirretxe izanen da lehendakaria bertze urte batez eta Jose Luis Bidarte lehendakariordea.

*ttipi-flash*

- ❖ **2.750 biztanle** ginen Lesakan urte hasieran, udal erroldaren arabera. Horietatik, 1.444 emakumezkoak ziren eta gainerako 1.306 gizonzkoak.
- ❖ **Hiru lesakar finalean** Manolo eta Estitxu Arozena aita-alabak eta Xabier Silveira arituko dira igande honetan Leitzan burutuko den Nafarroako Bertsolari txapelketaren finalean.
- ❖ **Udal artxiboa** Scriptum enpresak eginen du udal artxiboaren antolatze lana 3.102.885 pezetaren truke. Honen araberrako laguntza eskatuko du Herriko Etxeak.
- ❖ **Mobilizazioak** Joxi eta Joxearen hilketaren ondorioz, zenbait mobilizazio egin dira asteburu honetan. Ortziralean giza katea antolatu zuen HBk eta larunbatean manifestazioa ateri zen eskualdeko Amnistiaren Aldeko Batzordeak deitua.

**KOXKILA  
OSTATUA**

Zarandia, 4 - LESAKA

**XATURETXEA**  
  
**JATETXEA**  
Tfnoa: 63 70 27 LESAKA

**LORA DENDA**  
  
**TXIRULA**  
Bittiria LESAKA  
627542  
bitxikeriak • opariak • eskulangintza

**EROSLE**  
LESAKA

Kalitate-prezio arteko orekarik hoberena  
**Frexkuena**  
zugandik  
hurbilago  
Bittiria, 67 - ☎ 637264



**EKAITZA kafetegia**

GOSARIAK, BERENDUAK, TERRAZA

Plaza Berria, 13  
☎ 948 - 62 75 47  
**LESAKA**

Lagunekin  
elkartzeko  
toki egokia



**Etzalar**

# Plantazio berritarako proiektua osatu da

17 milioi t'erdiko aurrekontua izanen du

PELLO ETA ALBERTO

Unanin eta Mugerdin, 30 bat hektareatan, plantazioa egiteko proiektua burutu du Foresna-Zurgaiak, udalak eskatuta. 17,5 milioiko presupostuaz insignis pinua, douglas eta bertako haritz landareak sartuko dira, sasia garbitze eta zerrakura paratzea barne. Proiektua heldu den negurako da.



**Herriko Ostatuaren lehen urtemuga dela eta martxoaren 31an, 10,30etan 'Los Morochos' taldeak kontzertua emanen du.**

## Altxataren batzarra

Apirilaren 2an, igandea, urteko batzar nagusia egingen du Altxata kultur elkarteak eguerdiko 12,30etan, eskola zaharretan. Iazko kontuak, urte honetako aurrekontuak eta Junta berritzea dira gai nagusiak.



Jose Manuel Bizente «Olazarra»

• **Lorpen lantegiak hamar urte bete ditu. Lan eskasiaren kanta aditzen den honetan, nola zabilzate?** Lana izan bada. Eta aunitz. Zifrak honelakoak dira: Espainian 150 milioi pare galtzerdi saltzen dira, eta produzitu berriz, 110 milioi. 40 bat milioi galtzerdi pare, hortaz, kanpotik heldu da. Eroslerik badela erran nahi

du horrek.

• **Saldu edo ez saldu, kezkarik ez duzue, hortaz?** Kezka gure buruarekin bakarrik dugu, gauzak ongi egin eta prezioak neurtu beharra, nork hobea eta merkeago eskeiniko borrokan sartuak baikaude.

• **Nork merkeagoko lehian nor dituzue etsaiak?** Galtzerdi arruntetan, zail da

## Ezkututzan belati berriak

Ezkututza izeneko eremuan ia 8 hektareako lur zatia egokitu da belatarako, urez hornitu eta itxi. Denerata 7,7 milioi pezeta-ko kostariotik Gobernuak 6,8 milioi ordaindu du. Hiru herri-tarren artean banatu da belati berria: Benanzio Iparragirre, Gerardo Danboriena eta Jose Angel Goienetxe. Hamar urterako utzi die udalak eta 6.000 pezeta ordaindu behar dute urtero. Belatiaren prestatze lanagatik hektareako diru bat utziko dute.

Txina eta Portugaletik etortzen direnak baino merkeago saltzea. Guk gehiena izen edo markako galtzerdia egiten dugu. Ez 'Lorpen' izenekoak, hori ez du inor ezagutzen. Salmentan eza-gunak diren izenentzat egiten dugu guk. Eta horietan aunitz klase, neurri, kolore eta eredu egitera behartuak gara.

**IRU BIDE**  
ERRETEGIA

Tfnoa: 637127  
**LESAKA**

« **USOA** »  
NEKAZARI KOOPERATIBA

Ganaduarentzat pentsurik egokiena  
Tfnoa: 63 52 14  
**ETZALAR**

**HERRIKO OSTATUA**

**Jatetxea**

*Urte berriarekin batera indarberrituak*  
*Kuadrila, elkarte etabarrentzat... menu bereziak prestatzen dira*

© 635290  
**ETZALAR**

**ORDOKI ALTZARIAK**

Estilo guzietako mogleak

**ERAKUSKETAK:** Bittiria 30 eta Plaza Zaharra 26  
**SALMENTAK:** Plaza Zaharra 27 • Tfnoa: 637034 - **LESAKA**



**Igantzi**

## 2.560 zuhaitz landatu dira aurtengo neguan herri lurretan

Maiatzaren 6an inauguratuko dira Baratzondoko Zahar-Etxea, pizsina eta tenis pista

OSKAR TXOPERENA

2.560 zuhaitz paratu ditu aurtun udalak herriko mendietan, guztiak Erroitzkoerrekan: 200 gerezi, 100 eltzaur, 10 gaztain eta gainerakoak, haritz amerikanoak.

Zuhaitzetaz ari garen ez, aipagarria da Nafarroako Herri Kirol Federazioak Igantzin egindakoa. 600 haritz amerikano paratu zituzten herriko mendietan, probetan erabiltzen duten egurra mendiari itzultzeko urtero egiten duten ekin-tza sinbolikoan.

### Biltokiko batzarra

70en bat lagun bildu ziren Biltokiko juntak deitutako urteko



Arkupekoek egindako besta eguneko argazkia duzue hau. Hurrengoak Zahar-Etxe berrian egingen dute seguraski

Arg.: OSKAR

batzarrerara. Bertan, zenbait gaitaz mintzatu ondotik, juntako bortz partaide aldatu egin ziren. Hauexek dira aukeratu berriak: lehen-

dakari-orde: Joxean Lizardi, idazkaria: Idoia Urtxege, diruzaina: Rafa Zamorano eta bokalak: Martzelino Etxeberria eta Joxe

Ramon Etxeberria. Urteroko ekingak aitzinera eramateaz gain, estatutuak berritzeari ekin behar omen dio junta berriak.

### Baratzondoko inaugurazioa

Oraindik gauza haundirik erran ezin bada ere, Zahar-Etxea, pizsina eta tenis pista, maiatzaren 6a, larunbatean, inauguratuko dela jakin ahal izan dugu. Egun horretako egitaraua prestatzen ari dira eta ezagutzerakoan emanen dugu jakitera.

### Jendea landan

Jendea gogor hasi da landatako lurrak moldatzen, udaberri hasiera honek eskeini dituen eguraldi ederrak aprobetxatzeko modukoak izan dira eta. Patata behinpein, jende gehienak ere du eta baratze eskinek ere harroaldi ederra hartzen ari dira.

## MOLINERO

### PINTURAK



Etxe barneko hezetasun eta kondentsazio problemak moldatuko dizkizugu eta gainera, barne edo kanpoalderako behar dituzun pintura plastikoen arabera prezioetan.

Eztegara 19 • ☎ 63 02 40 • BERA

Zure ingurua klase guzitako insektuz (xomorro, zinaurre, armiarma, kukuxu...) eta arratoi-xagutzozgarbitu nahi baduzu, deitu! Gu arduratuko gara horretaz.

Termita eta Polillen kontrako tratamendua

**BERA**  
DESINFECCIONES

☎ 63 01 55

BERA

**servigym**  
SPORT

**TALPREN S.L.**

Instalazioak, ekipamendua, kirol eta aisialdirako zolak

- Etxean kirola egiteko tresnak (Arrauna, bizikleta finkoa)
- Bizikletak (mendikoak eta osagarriak)
- Saunak, masaiarako tresnak

**ERAKUSKETA eta SALMENTA**

Prudencio Arbide 2, behe IRUN (Herriko Etxearen ondoan)

☎ 943 - 63 19 56 Faxa: 943 - 63 19 59





# Landondo eta Euzeliko presen arteko erreka kixkalia agertu zen

Arrantza debekua zabaldu baino bi egun lehenago hainbat amorrain hilik azaldu ziren

**GARBIÑE ETA ELIXABET**

Duela bi aste, arrantza debekua zabaldu baino bi egun lehenago Landondoko presatik Euzeliko presara arteko erreka erabat kixkalita agertu zen. Bertara gazte batzuk hurbildu ziren eta egoera benetan penagarria aurkitu zuten. Bazter guztietan amorrain hilak ikusi ahal zirelarik. Kilo bat 400 gramoko amorrain bat ere aurkitu zuten hilik. Segiduan guardari deitu zioten, hau hurrengo egunean azaldu zen eta erreka zainduko zutela erran zuten.

## Agesta eta Errandonea txapelkun

Ander Agesta eta Rafa Errandonea biko-



Argazkian ageri den kilo eta 400 gramoko amorraina bezalako aunitz ez baziren ere, arrain aunitz agertu zen hilik orain dela aste pare bat

tea neguko pilota txapelketan txapelkunak suertatu zen, martxoaren 18an, Labrit pilotalekuan, Chaffe eta Lakuntzaren aurka 18-

## 16 irabaziz. Amaia finalean

Amaia Telletxea Arantzako bertsolari gaztea finalerako txar-

tela lortu zuen martxoaren 19an Barañainen jokaturako finalerdietan. Igande honetan Leitzañan izanen da finala.

## Apostu ikusgarria burutu zen

San Jose egunean, herriko frontoian apostu bat ikusteko aukera izan genuen. Bertan Patxi Bergarak ezin izan zuen txingarekin errekorra hautsi, esku banatan 100 kilo jasoz. Berak dioenez, txingek irrist egin omen zioten. Bertzalde 'Banana'k 100.000 pezeta irabazi zituen Oskar De Rueda eta Joxe Miguel Errandonearen aurka egindako apostuan. Bananak 35 korte eman zizkion egurrari motorrez, bertze bikoteak 10 tron-tza arpanaz moztu baino lehenago. Aipagarriena, frontoian bildu zen jendetza.

## ZIZKA OSTATUA

Martxa eta mozkor saltsa  
Altzate 28 - BERA

## SAROBEB okindegia

SANDERS Pentsuak  
Eztegara 41, Tfnoa: 63 08 99 - BERA



© 631076 • BERA

## GOYA

JOSTAILUAK  
JANTZIAK  
OPARIAK  
ERREMINTAK

Altzate, 5 Tfnoa: 63 00 83 BERA

## FUNERARIA ZERBITZUAK DONEZTEBEN



## MALDAERREKA, S.L.

24 ordutako zerbitzua  
Iruñea-Donostia-Irongo ospitaletatik  
edozein herritara trasladoak  
Tfnoa: 63 74 04 • LESAKA

## ttipi-ttapa

5.950 harpidedun  
20.000 irakurle

Zure klienteek  
irakurtzen dute  
Zure publizitatea  
ttipi-ttapan



**Sunbilla**

## Bi sunbildarrek parte hartu dute Estatuko lera-zakur txapelketan

Bidal Ibarra sei zakurrekin eta Aitor Zugarramurdi lau zakurrekin atera ziren

IXABEL ETA JOSUNE

Martxoaren 18an, Baqueira-Bereten ospatu zen zakur laisterketako Espainiako txapelketa. Sunbillako bi mutilek parte hartu zuten txapelketa honean, bat Bidal Ibarra sei zakurrekin eta bertzea Aitor Zugarramurdi lau zakurrekin. Eguraldiari buruz, sobera bero egin omen zuen eta zakurrentzat txarra da horrelako eguraldia. Halere, ahaleginak egin zituzten. Oraindik ez dakite seguru zein postutan gelditu ziren, baina hiru lehendabizikoen artean ez behinpehin.

Aipatu behar da herriko animatzaileak ez zirela faltatu, 30 lagunekoa koadrilla joan baitzen bertara.



Ezkerreko argazkian gimnasiako taldea afari egunean. Ezkerrekoan, udaleko zinegotziak eta bertze langileak, Mendaur egunean Arretxekobordan.



### Gimnasiakoan afaria egin zen

Aurtengo denboraldia bukatu dela eta afari bat egin zuten gimnasiara joaten diren emakumeek. Lehenbizian aunitz apuntatu baziren ere, azken aldian hamabortz bat bertzerik ez ziren joaten, denak emakumeak irakaslea ezik. Joan

den urtean apuntatu ziren, baina aurten, ikararuta edo, ez da gizon bat ere joan. Bukaera ona emateko afaria egin zuten herriko osatuan. Musika ez zuten, baina egia errateko, ez da beharrik ere, hango giroa ikusgarria izan baitzen.

### Futbol-sala azken txanpan

Txapelketa hau bukaerara ailegatzeko ari da, bi jornada bakarrik falta baitira. Hurrengo apirilaren lehen jokatuko da partidu hauetako: 4etan, NARBARTO - TITI OSTATUA; 5etan, XANPALE - ULIBELTZAK B; 6etan, ARIZKUN - ANTUZELAI; 7etan,

BURRUNBA - ULIBELTZAK A. Sariei dagokionez, erran behar da denek izanzen dutela. Bi lehenbizikoek kirola egiteko materiala eta gainerako trofeoak. Kiroltasuna, pitxitxia, portero onena eta erregularitatea ere sarituko dira.



**GAZTANDEGIA**  
Etxeko Ardi Gazta

Petxenekoborda  
Tfnoa: 45 08 62  
**SUNBILLA**

**MariCruz**  
LENTZERIA

Parrokia 11, Tfnoa: 45 01 12 - **DONEZTEBE**



**TELLETXEA MOBLEAK**

**Eskeintza berezia somier eta koltxoietan**

- 90KO KOLTZOIA 9.500 PZTA
- 135KO BIKOTE KOLTZOIA 12.500 PZTA
- 105KO KOLTZOIA 10.500 PZTA

**EGURREZKO LAMINAK DUTEN SOMIERRAK**

- 90KOA 5.600 PZTA
- 105KOA 6.400 PZTA
- 135KOA 7.500 PZTA

*Kalitate hoborrena eta  
7 urte arteko garrantia*

Rosa Seminario z/g Tfnoa: 45 02 58 - **DONEZTEBE**



Doneztebe


## Gazteen arteko aizkora apostua eginen da igande honetan

Doneztebeko Juan Telletxea eta Errezilgo Arria V. arituko dira frontoian eguerdiko 12,30etatik aitzinera

TXEMA ETA KARMELO

Gehientsuenek kirol honen desagerpena abudo emanen dela uste badute ere, igande honetan, apirilak 2, eguerdiko 12,30etan bi gazteen arteko neurketa ikusteko aukera izanen du zalegoak Doneztebeko frontoian. Bata, bertakoa, Juan Telletxea hemeretzi urtekoa eta bertzea Errezilgo Arria V.a, 17 urtekoa. Biak ere mutil puska ederrak dira, 90 kilo inguruan dabiltzanak, nahiz eta Arria V.a hamar zentimetro luzeagoa izan, bere aitak bezala 1,90 metro neuruzen baitu.

Lana berriz, bi oinbiko (72 ontzakoak), doneztebarrak ekarriak eta Arriak ekarritako lau kanaerdiko moztu beharko ditu bakoitzak. Arriak bota zion desafioa Telletxeari eta honek hartu, alde bakoitzak 200.000 peze-



Juan Telletxea, hemeretzi urteko doneztebarra Arria V.aren kontra arituko da igandean. Berak onartu duenez, 'apostu peleatua' izanen da

Argazkia: Artxiboa

ta jokatu du. Juan Telletxeari galdetu diogu nola ikusten duen norgehiagoka eta "peleatua izanen da, ez da errexa izanen ez, irabaztea" erantzun digu.

### Zubi berria Galbarrenean

Zubia berehala paratuko dute Doneztebe

zeharkatzen duen uhaldean, Galbarrenean alegia. Elizaren atzekaldean kokatua egonen da, jubilatuei elizarako bidea errazteko, nonbait.

Bertzalde, babese-ko pisuak egiten ari dira eta hagitz abudo teilatua paratuko diote.

ttipi-flash

### Suteak

gertatu dira joan den astean Doneztebe inguruan eta dirudenez mendiari sua nahita eman diote.

### Liburutegirako

hirurehun bat liburu eman ditu Usurbilgo inprimategi batek deusen truk. Eskertzekoa da honelako inizatibak eta oroitarazi nahi da edozein eman ditzakela liburuak donatibo gisa, denok aprobetxatu ahal izateko.

### Sexu heziketa ikastaroa

Sexu heziketari buruzko ikastaroa egiten ari dira Sunbillan, lehenbiziko aldiz gure inguruan, Doneztebe-ko Osasun zentroko bi erizainen eskutik. Bortz saio emanen dira, bakoitza lau-bortz

ordukoa eta parte hartzen ari direnak hamairu eta hemezortzi urte arteko gazteak dira, denak neskak. Ikastaroa akituxea bada ere, partehartzaileak hagitz gustora daude ikastaroarekin

## EKAITZA TABERNA



Ireki berri berria

Osasun Zentroaren parean

Astero kontzertuak ostirala eta igandetan

DONEZTEBE • © 450991

## SALDIASko zerrategia

Eraikuntzarako estrukturalak eta embalajeak

Zubizarra, SALDIAS • Tfnoa: 615108, 615044



## SANTAMARIA Jatetxea

Espezialitatea euskal sukaldaritzan Eguneko menua eta karta

Nagusia 30, Tf.: 45 00 43 - DONEZTEBE



**Bertizarana**

## Nekazal turismoaren egoera aztertu du EHNEk Bertizen

Mikel Petrirenaren erranetan, "gaur eguneko landetxeen erdiak ez dira nekazarienak"

TTIPI-TTAPA

EHNE nekazal sindikatuak baserri inguruetan turismoak duen eragina aztertzeko ihardunaldiak burutu zituen joan den ortzean eta ortziralean Bertizko jauregian.

Lehendabiziko egunean, sindikatuko kideak aritu ziren beraien eritzia plazaratuz. Ortziralean berriz, parte hartu nahi zuten edonorrendako zabaldu zituzten atea.

Mikel Petrirena, Nafarroako EHNEko lehendakariak ihardunaldi honen aurkezpean adierazi zuenez, "Nafarroan gaur egun dauden landetxetatik



Mikel Petrirena eta Lurdes Indaburu, EHNEko ordezkariak Argazkia: EGIN

*% 50a ez dira nekazarienak, baserritarrak ez diren etxe jabeenak baizik". Petrirenaren ustez, nekazalturismoa baserriak mantentzeko eta herriko merkaturua hobetzeko balio badezake ere "mugak jarri behar zaizkio, ez baikaude postaleko motiboak izateko prest".*

Arazo honen inguruan eta bertzelako gaiak jorratzen aritu ziren bi egunez Bertizen eta Nafarroako nekazarietz gain, Euskadiko Komunitate Autonomokoak, Aragoi eta Errioxakoak eta nafar administrazioeko teknikariak ere izan ziren ihardunaldietan.

**Malerreka**

## Arkupeak antolaturik Benidorm-erabidaia maiatzaren 2tik 16ra

Apirilaren 5ean, bertzalde, Montezilloko zezen finkara joanen dira jubilatutako elkartekoak

TXEMA ALDABE

Bi aste pasatzeko aukera ederra dute Arkupeak elkarteko bazkideek. Maiatzaren 2an, goizeko 6,45etan aterako dira Beratik eta karretera generala pasatzen den herrietatik hartuko dute jendea. Leitza eta Goizueta-koak Doneztebe eta Iruñeara joaten ahal dira. Benidormerako bidetan dagoen jatetxe batean bazkalduko dute

eta itzuleran gauza bera. Hango egonaldia hotelean egingen da eta logela bikoitzetan, bakarkako hiru bertzerik ez baitira izanen. Bidai osoaren balioa 42.500 pezetakoa izanen da, eta bakarkakoak 600 pezeta gehiago ordaindu beharko dituzte egunean.

Bidaiara apuntatzeko eguna apirilaren 4a izanen da, arratsaldeko 4etatik 6etara sozio edo bazkideendako eta

bazkide ez denarendako egun berean, baina arratsaldeko 6etatik 7etara. Apuntatzeko telefono zenbakia 450878a da.

### APIRILAREN 5EAN MONTEZILLOKO ZEZEN FINKARA

Benidormera joan aitzinetik ordea, bertzelako bidai bat egingen dute eskualdeko jubilatutako eta pentsionisten elkartekoak.

Apirilaren 5ean,

Montezilloko zezen finkara joanen dira. Arkupeak elkarteko zuzendaritza batzordetik adierazi dutenez, "Montezillo konplexu turistiko bat da, bakkarabere giroan eta natur ederitasun paregabea duena".

Egun osoaren prezioa 3.000 pezetakoa izanen da, koxplexua bisitatzea barne delarik eta autobusaren irteera ordua interesatuei jakinaraziko zaie.

Bazkaria, Argedasko Jatetxe Modernoak prestatuko du, Erribera aldeko jaki goxoekin moldatua. Ondotik dantaldia izanen da arrats partera arte eta 7,30ak aldera etxeruntz bueltatuko dira.

Bazkaria baino lehenago Milagro herri-erakundearen ekurtsio ttiki bat egingen da seguraski, eta nahi duenak bertako produktu tipikoren bat erosteko aukera izanen du.



Argitaratzailea: Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Arantzako Herriko Etxea, 31790 Arantza, Tfnoa: 634125  
 Montajea eta Maketazioa: ttipi-tpapa

## Euskara Mankomunidadearen aurtengo egitasmoak

### ◆ Udal administrazioa

Azkeneko urteotan bezala, Bortzirietako hainbat udal langilek beren euskara maila hobetzeko ikastaroak eginen dituzte, Mankomunidadeak antolatuta. Ildo beretik, Udal Administrazioan euskara normalizatzeko hainbat urrats emanen dira, aurtengo helburu nagusia Udal Administrazioako alor guzietan gutxienez elebitasunera ailegatzea izanen delarik. Honen inguruan eta herritarrek udaletan euskara gero eta gehiago erabil dezagun laguntzeko, 94an bezala Nafarroa mailan kanpainatxo bat egingen da.

### ◆ Eskualdeko komunikabideak

Eskualde honetan ditugun komunikabideei, hau da, Xorroxin eta Ttipi-tpapari dirulaguntza emanen zaie. Modu berean, aurten ere 'Euskara Batzordeen Berriak' gehigarri honen lau ale argitaratuko dira.

### ◆ Bortzirietako Euskaltegia

Aurten ere Euskara Mankomunidadeak Euskaltegiari, sinatuta daukaten hitzarmenean zehazten den modura, dagokion dirutza emanen dio.

### ◆ Kultur ekitaldiak

Urtero bezala, herrietako Euskara Batzordeek euska-

### AURREKONTUA

<p>■ <b>Sarrerak:</b></p> <p><i>Aurtengo dirusarrerak 25.384.154 pezetakoak izanen dira, inportanteena Bortzirietako udalena izanik (13.355.648 pezeta).</i></p>	<p>■ <b>Ateerak:</b></p> <p><i>Artikuluari aipaturakoa egiteko, azpiegitura gastuetarako eta Mankomunidadeko langileen soldatak ordaintzeko aurrekontua 25.384.154 pezetakoa izanen da.</i></p>
--	---

raren inguruko hainbat ekitaldi antolatuko dituzte. Horretarako 750.000 pzta. daude modu honetan banatuak: Lesaka eta Berarako 225.000 pzta. eta Igantzi, Arantza eta Etxalarrerako 100.000 pzta. Bertzalde, urtean barrena bi hitzaldi antolatuko dira.

### ◆ Irakaskuntzako kanpainak

Aurten ere irakaskuntzaren alorrean hainbat kanpaina egingen dira, euskarazko irakaskuntza bultzatzeko helburuarekin. Abudo "Aurrematrikulazio kanpaina" delakoari hasiera emanen diogu, eskola-ikastoletan sartuko diren haurren gurasoei Deredua aukera dezaten animatuz. Ondoren, 8. mailako ikasleei ere hurrengo urteetan euskarazko irakaskuntza aukera dezaten animatuz bertze

kanpaina bat egingen da. Azkenik, iraila aldera, "Transmisio kanpaina" egingen da. Honen helburuak gurasoek beren seme-alabekin euskara erabil dezaten kontzientziaztea eta beren euskara maila hobetu dezaten euskaltegiara joateko animatzea dira. Bertzalde, kontuan harturik Nafarroako Unibertsitate Publikoak euskaraz ikasteko ematen dituen aukerak urriak direla, Nafarroa mailan hau salatzeko kanpaina egingen da.

### ◆ Bortzirietako Bertso Eskola

Bertze urteetan bezala, Euskara Mankomunidadeak Bertso Eskolari dirulaguntza emanen dio. Gainera, aurten Bertso Eskola bortzitar guzientzako ailegatzeko ahalegin berezi bat egingen da, batez ere eskola-ikas-tolen bidez.

### ◆ Euskararen kale neurketa

94an egin zen modura, 95ean ere komenigarri izanen da euskararen erabilera-kale neurketa egitea, iazko datuekin konparazioa egiteko eta beren baliagarritasuna ziurtatzeko.

### ◆ Haurrentzako ateraldiak

Bortzirietako 6. eta 7. mailako haur euskaldunek, Malerrekakoekin batera Gipuzkoako Gaztelun uztaileko azkeneko astea pasatzeko aukera izanen dute. Ateraldi hauen helburua haurren artean euskararen erabilera bultzatzea eta kontzientziaztea da.

### ◆ Gazteen mundua

Modu berean, Bortzirietan euskara guttien darabiltenak gazteak direla ikusirik, hauen artean euskararen erabilera sustatzeko hainbat ekitaldi egingen dira.

### ◆ Merkataritza euskalduntzeko egitasmoa

92an antzeko egitasmo bat egin bazen ere, aurten SIADECO enpresaren eskutik Bortzirietako merkataritzan euskararen erabilera sustatzeko egitaraua martxan jarriko dugu, hurrengo urtean ere segida izanen duelarik.



## Iñaki Gogortza: «Euskara Mankomunidadea jendeak eskatuta sortutako instituzioa da»

Iñaki Gogortza Berako Udaleko zinegotzi izan da azken lau urteetan. Eta, Jose Luis Senperrekin batera, Berako ordezkaria Bortzirietako Euskara Mankomunidadean. Hauteskundeak hurbil, eginkizun hori uzteko dagoenean, bere esperientziak eman dion ikuspegia eskeintzen digu.



### Zuk aitzinetik ikusten eta espero zenituenak bete ditu Euskara Mankomunitateak?

Edozein gaitan bezala, alde positiboak eta negatiboak ikusten dira. Hor daude, alde onak bezala, matrikulazio kanpainak, udaletxeetako langileen euskalduntze eta alfabetatzea; nahiz eta batzuetan euskaldundu ondoren hemendik alde egin duten.

### Alde txarrak ere ikusi ditiozu, orduan?

Nire frustrazio haundiena Euskararen Ordenantzarekin gertatua izan da. Euskara Mankomunitatean lanean diharduten jende guziak, euskararen diagnostikoa egiteko orduan, «Siadekok egin zuen diagnostikoa, errate baterako ados etortzen gara, eta denok onartzen dugu euskararen egoera ez dela behar den bezalakoa. Eta euskararen alde jokatu behar dela onartu egiten dugu, edo eta horrela mintzatzen gara, behinik

behin. Normalizaziorako pausoak eman behar direnean, ordea, ez gara ados; neurri xeheak hartu behar direnean, arazo larriak sortzen dira gure artean. Hori ikusi da Ordenantzarekin. Euskara, edozein hizkuntza bezala, egoera ez normalizatu batean dagoen bitartean, desagertzeko arriskuan egonen da, funtzio sozialak betetzen ez dituelako. Ordenantzaren helburua, prezisiki, funtzio sozial horietako bat betetzea

zen.

### Euskara Bortzirietan funtzio sozial horiek bidean aitzinera doa?

Udaletxetik begiraturaz nik zera ikusten dut: udaletxeko langileek euskaraganako lehen baino jarrera positiboagoa dutela. Gaur udaletxeko langile artean, neurri handi batean, euskara hizkuntza arrunta eta erabilia dela erra-ten ahal dugu, inolako problemarik gabe. Horretan aurrerapausoak izan dira.

### Mankomunitateak euskara bultzatzeko eta laguntzeko duen ahalmena eta posibilitateak haunditzen joanen direla uste duzu edo ttikitzen?

Nire ustez, egindako bideak, bortz urte baditu Mankomunitateak jada sortu zenez, sendotasuna eman dio. Eta hori ona da. Mankomunitateak ahalmenak baditu, baina ahalmena jendearen borondatearen araberakoa da. Zera erran nahi dut, jendeak ere Mankomunitatearen zereginak bere gain hartzen baditu, eta bere gain hartzen dituen neurrian, euskara bultzatzeko ahalmena mantenduko du, baita zabaldu ere egiten ahal du. Izan ere, Mankomunidadea ez baita jendearengatik aparte dagoen instituzio isolatu bat, jendeak eskatuta sortu den zerbitzu baizik.

### Mankomunitateak, orduan, berak bakarrik, ahalmen tiki samarra du?

Instituzio guziekin bezala gertatzen da honekin ere. Arazo bat instituzioak bere gain hartzen duenean, arazoari soluziobidea emateko ahalmen osoa baduela uste izan du jendeak. Jendeak postura dinamiko eta partehartzailea behar du izan, eta horren arabera, bai, zabalitzen dira posibilitateak.



## Berriak

## Txaloketa



**B**ortzirietan Dereduko matrikulazioak goiti doazi. ■ 94-95 ikasturtean hasi diren 48 ikasle berrietatik 43 D eredu matrikulatu dira,


4 B eredu eta ikasle bakarra A eredu.

## Herriko Plaza

**A**zkeneko datuek diotenez, Bortzirietan 10 lagunetatik 8 euskaldunak dira, bat ia euskalduna da eta bertzea erdalduna. Halere, eta gure denda auzorik erdaldunenean dagoela kontutan hartu gabe, gure eguneroko lanean eta jendearekin daukagun harremanetan proportzio horiek ez dira betetzen. Aunitzetan jendea, euskalduna izaki eta, erdaraz zuzentzen zaigu, nahiz eta dendariak euskaldunak garela jakin. Ohituraren pisa hagitz handia da. Datuei begira, euskararen erabilera gero eta haundiagoa dela merkataritzaren munduan nabaritzen da. Azken urteotan euskarazko eskaera gehitu eta jendea gero eta gehiago zuzentzen zaigu euskaraz. Ho-



rretan euskal irakaskuntzaren eragina handia izan da. Euskaraz ikasitako enabilerak nabarmentzen da eta bertzalde, guraseok, haurren eraginez, gero eta gehiago erabiltzen dute. Gainera, aipagarria da euskaraz zuzentzen zaigun jendearen artean kanpotik etortitako euskaldunak gehienetan euskaraz mintzatzen zaigula (batez ere irakaskuntzaren mundukoak), bertako aunitzek er-




**O**tsailaren 11n Beran Kukubiltxo eta Oskorri taldeen emanaldia izan genuen. Sarrerak kobratzen zeuden hiru lagunetatik bi erdal-

dunak ziren. Bertzalde, Lesakako udalak igerileku berrietako ostatuan "BAR" errotooa paratu du, erdaraz hutsean beraz.

## Salaketa

## Liburuak



«Euskal Herria mendiak eta historiaurrea»

Jacques Blot  
Elkar, 240 orr.

Jacques Blot, pirinear jatorriko familia batean sortua eta Donibane Lohitzunen medikua, azken hogeita hamar urteotan ari izan da, bere asti libre gehienean Euskal Herriko historiaurrea ikeritzen. Liburu honetan, egileak eskutik garamatza aspaldiko garaietara, orduan hasten baitira euskal kulturaren erro sakonak.

Kontxi IGOA

Lesakako 'Erosle' dendakoa

## Aunitzetan jendea, euskaduna izaki eta, erdaraz zuzentzen zaigu

daraz solasten segitzen duten bitartean. Adinei begira, gazte txoak eta adinekoak dira euskara gehien erabiltzen dutenak, eta tartekoak erdara. Bertzalde, gure funtzionamenduari begira, gehienetan euskaraz ahozko harremanetan bakarrik erabiltzen dugula erraten ahal dugu. Idatzizko erabilerari dagokionez, publizitate orokorra datorren bezala hartu behar dugu eta kartel edo iragarkiren

bat egin nahi dugunean, euskaraz egin nahi izatekotan bertze norbaitengana jo behar izaten dugu. Horregatik, aurten Euskara Mankomunitateak merkataritzan euskara bultzatzeko egin gogo duen programa, honetan gabiltzanontzat ongi etorriko zaigu. Gainera, bezeroek karteletan euskara erabiltzen dugula ikusiz gero, eurek ere errezago zuzenduko zaizkugu euskaraz.



«Zer gerta ere»

Karlos Linazaso  
Alberdania, 180 orr.

'Zer gerta ere' ez da mehatxu bat, ez argibide bat ere; Zer gerta ere Berardo L., T.-ko udal liburuzainak, amaigabe utzi zuen nobela osoa da. kapitulu solteak dira, luze-laburrean desberdin, azken jostekaren zain gelditu zirenak. Baina, bere horretan, badu indarririk lan erraldoi honek; ez da herren edo besamotz, gorputz osoko eta sasoio baizik.



# Bortzirietako idazle zaharrak

Iazko azaroaren 15ean Joxe Angel Irigaraiak "Euskararen historia Nafarroan" hitzaldia eman zuen. Hitzaldi horren zati batean, Bortzirietan XVIII, XIX. eta XX. mendeetan izandako zenbait euskal idazleren berri eman zuen. Horrela bada, Bortzirietan sortu edo bizitutakoak eta euskaraz edota euskararen inguruan idatzi zuten idazleak hauek dira:

*Jose Antonio Mikelestorena (1710-1785)*

Apez lesakar hau Iruñen ere sakristau uzan zen. Honek *Zerura nahi duenak har dezakean bide erraza* liburua idatzi zuen, Iruñean 1751an argitaratua.

*Fray Antonio Berakoa (1808-1887)*

Luis Luciano Bonaparte Printze hizkuntzalararen laguntzailea izan zen. Hark, bere dialektologia lanak osatzeko, *Benedicte* lana hemengo euskaraz itzularazi zion.

*Eusebio Eltzaurdia Zubia (1874-1956)*

Etxalarko kaputxinoa zen. Bizitza gehiena Lekarotzen eman zuen irakasle gisa. Bere ikasleen artean euskaraz idazteko bideak sustatzen ibili zen. Gainera, Euskaltzaindikoko partaide izan zen, euskaltzain urgazle gisa.

POESIAS DE TRES VERATARRAS  
EN EUSKERA

IRU BERATARREN EUSKAL BERTSOAK



BERA

1.880-1.980

EUSKAL BESTAK

Liburu honetan Fray Antonio, Dornaku eta Larramendiren lanak ageri dira

*Ignacio Larramendi Del Puerto*

Berako Leonperikobaita etxean sortua zela jakin arren, ze urtetan jaio zen ez dakigu. Gizon hau espartzingilea zen eta Etxalarko Etxebertze etxeko Asunción Arburuarekin ezkondu zen. Juan Larramendi pintorea honen semea zen. Larramendi olerkaria zen eta herri-olerkitik hurbil zegoen. Azkuek berak euskaltzain urgazle izendatu

zuen. *Egan*, Guernica eta El Bidasoa bezalako aldizkarietan maiz idazten zuen, "Beratar bat" ezizena erabiliz. Bere olerkiekin, *Olerkiak* liburua argitaratu zen Zarautzen 1960an.

*Juan Maria Erroman Dornaku Olaetxea (1878-1959)*

Beratar hau, Lekarotzen ikasi ondoren Filipinetan misioetan ibili zen. Gizon hau hiztegi kontu-

tan aritu zen gehienbat, gramatikak, olerkiak eta bertzelako artikulua ere idatzi bazituen ere.

*José Iturria Erize*

Arantzakoa bazen ere, Lezoko kaputxinoen komentuan bizitu zen. Bere lanak sinatzerakoan "Lezoko Joseba" edo "Aranaztar Joseba" ezizenak erabiltzen zituen. Batez ere liburu erlijiosoak idatzi zituen, bertzeak bertze *Nere laguna* liburua.

*Joaquin Aldabe Juanikotena (1893-1973)*

Olerkaria zen eta artikulua aunitz idatzi zituen *Diario Vasco*, *Zeruko Argia* eta *Euzko gogo* bezalako aldizkarietan.

*Juan Miguel Seminario Rojas (1904-1968)*

Beratar hau gerra ondoren euskaltzain osoa izendatu zuen. Gutxi idatzi zuen eta gehiena erdaraz. Euskaltzaindikoko sarrera hitzaldia ere erdaraz eman zuen, gai honen inguruan "Formación de neologismos en los idiomas y en especial en el vascuence".

*Eladio Esparza Aginar*

Lesakar hau kazetari izan zen. Frankista zen eta 1937an Gasteizko gobernadore kargua izan zuen. Hau ere euskaltzain urgazlea izan zen. Euskaraz *Panpina* antzerki lana idatzi zuen.

**AHOLKURIK BEHAR IZANEZ GERO, DEITU**

*Etxe berriari izena nola idatzi, hilarrietako plakatxo bat nola moldatu edo komertzio, jatetxe edo ostatu berriaren izena euskaraz nola idatzi ez badakizu, deitu*

634125



**Malerreka**

## Frantsesen bisita bertako garapen esperientzien berri izateko

Zonaldeko garapen agenteek antolatu zuten

TTIPI-TTAPA

Frantziako Goi Provenza inguruko 'Syndicat d'amenagement des Baronnies' taldeko lagun batzuk zonaldea bisitatu zuten martxoaren 9tik 12ra. Bisitarien helburua, Baztan-Bidasoako garapen esperientzien eta azpiegituren berri jakitea zen. Honela, Doneztebe eta Zubietako depuradorak, Zubietako herria bera (hagitz polita dela erran zuten), Oliteko bodega bat eta Aranguren go zabortegia bisitatu zuten bertzeak bertze. Lehendabiziko egune-



Zonaldeko garapena ikustera etorri ziren Frantziatik

an, Juan Cruz Allik, Nafarroako Gobernu-ko lehendakariak har-

tu zituen. Bidaia, gure zonaldeko garapenerako agenteak diren

Isabel Elizalde eta Arantxa Arregik antolatu zuten.

**ITUREN**

## Bertso afaria izanen da larunbatean

IBAN ISASI

Larunbat honetan, apirilaren 1ean, bertso afaria antolatu da, Herriko Etxeko garbaran. Bigarren urtea da honelako afari bat antolatzen dela eta aurtengoan bertso kantari ibiliko direnak, Xabier Amuriza eta Xebastian Lizaso izanen dira. Afarirako txartelak ohiko lekue-tan aurkituko dituzue.

## Erreketak

Erreketak burutu ziren Nafarroako Gobernu-ko suhiltzaileek begiztatuta martxoaren 19an, San Jose eguna, Ituren eta inguruetako zenbait herritan.

**Areso**

## Historia luzea du herriko pilotalekuak

1853an egin zen lehen frontisa eta garai batean laxoan jokatzeko omen zen bertan

JUANA M<sup>o</sup> SAIZAR

Herritar guztiak oso harro gaude dugun plazarengatik, bainan oso gutti izanen dira frontoiaren benetako istorioa dakitenak. Frontoia bere osotasunean ikusi behar dugu, Sastineko paretatik frontiseraino. Seguraski, paret horrek goian daukan harriak zein urtetan jaso zen adierazten digu, 1853an alegia. Joko honetako lehenbiziko frontisa izango zen. Laxoa edo guante jolasteko ezau-



Frontoiak historia luzea du

Arg.: Juana Mari

gari guztiak ditu. Sakea lurrari ongi atxikitua du eta botarria erreboteko paretan beste aldean jartzen zen. Gure herriko botarria, zorionez oraindik ikusi ahal dugu, Sastineko etxe ondoan dagoen eskail buruan kokatua. Laxoaren jokua oso hedatua eta zabaldua izan zen gure inguruko lurraldeetan, gaur egun Malerreka eta Baztan aldean bakarrik mantentzen bada ere. 70 metroko luzera eta 16 metroko zabalera du.



Goizueta

# Gurasoek ez dituzte seme-alabak Leitzara bidali nahi

Horrela adierazi zuten behintzat Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzari (ESO) buruzko bileran

ESTEBAN AROZENA

Felix Otano, Iruñeko Administrazioaren ordezkari eta gure zonaldeko eskoletako inspektorearen asmoa 14tik 16 urte bitarteko goizuetarrak Leitzara ikastera bidaltzeko gurasoak konbentzitzea baldin bazen, garbi esan liteke ez zuela bere helbururik lortu, zeren propio horretarako burututako bileran hitza hartu zuten guztiak aukera honen kontra mintzatu baitziren.

Hau esanda gehienek igerriko duten bezala, LOGSE legearen garapenaz ari gara, hau da, ESO edo Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaz. Nafarroan heldu den urtetik martxan jarriko den berrikuntza honekin ikasleak 16 urteak arte eskolan ibili beharko dute derrigorrez. 14 urtetik gora Goizuetan



14 eta 16 urte arteko gaztetxoak Hernanira joatea nahi dute gurasoek

Artxiboa

ikasteko aukera administrazioak ukatu duenez, falta diren bi urteak non egin hautazterakoan sortu da eztabaida.

## GURASOEK HERNANIRA JOATEA NAHIAGO

Iruñean egindako programaketaren arabera ESOn azken bi urteak Leitzen egingo dituzte goizuetarrek. Gurasoek aldiz, ez dute onartzen aukera hau,

errepidearen egoera txarra (estua, ia 700 metroko puertoa...) hartzen dutelarik arrazoi nagusizat. Luze-xeagoa izan arren, gurasoen iritziz Gipuzkoako bidea egokiagoa eta arrisku gutxiagokoa da, eta horregatik askoz nahiago dute beraien seme-alabak Hernanira joatea.

Felix Otanok behin eta berriz erantzun berdina ematen zuen, hu-

ra administrazioaren bozeramaile bat besterik ez zela alegia, mapa horren aldaketa nahi izanez gero politiko-enganara jo beharko zela esanez.

## IRUÑERA JOATEKO PREST

Badirudi, gurasoak horretarako eta gehiagorako ere prest daudela, Iruñera autobusetan joateko kontuak entzun baitziren aipaturiko bileran.

## Herriko Etxea berritzeko dirulaguntza

Herriko Etxea pixkanaka konpontzeko asmoak aurrera darrai, teilatua berritzeko dirulaguntza eskaerari baiezkoa eman baitio Nafarroako Gobernuak. Bi aurrekontu aurkeztu zituen udalak horretarako, garestiena -10.600.000 pezeta-koa- izan delarik Iruñeak onartutakoa. Dirutza honen %70aren subentzinoa jasoko du udalak, gutxi gora behera zazpi milioi terdi pezeta.

## 25.000 pzta Korrikarentzat

Bukatu berria den Korrikak Goizuetako udaletik 25.000 pezeta-ko dirulaguntza jasoko du, azken batzurrean aho batez hartutako erabakiaren arabera.



## ALTZARIAK zurgindegia

121 errepide nazionala, 54. km

Tfnoa: 45 23 74 - IRURITA

- Sukalde, logela, jangela eta egongelarako mogleak
- Estiloko mogleak: Luis XV, Regence, L. Felipe, Napoleon.
- Haritz, gaztain eta gerezi egurretan egindakoak

FZ FOTO ZALDUA

## KOMUNIOAK

Kanpaina berri honetan, eskeintzen dizkizugun oroigarrien artean baduzu non aukeratu.

Hartu ordua:

ELIZONDO ☎ 580491  
DONEZTEBE ☎ 450364

EGUN HAUNDI BATERAKO OROIGARRI ON BAT





# Bertsolari txapelketaren finala igande honetan burutuko da

Amazabal pilotalekuan izanen dira, arratsaldeko 5etatik aurrera, Nafarroa eta Iparraldeko bertsolari onentsuenak

JOSEBA AZPIROZ

Nafarroako bertsolarien finala Leitza Amazabal pilotalekuan ospatuko da igande honetan, apirilak 2, arratsaldeko 5etan. Aurtengoan finalera ailegatu diren bertsolariak Bittor Elizagoien txapeldua, Jexux Arzallus, Manolo Arozena, Mixel Aire 'Xalbador II', Xabier Silveira, Estitxu Arozena, Amaia Telletxea eta Ernest Alkhat izan dira. Joan den urtean Lesakan burututako finaletik beraz, aldaketa bakarra izanen da, Xabier Silveira lesakarra Jean Pierre Mendibururen ordeiz.



Joan den urteko zortzi finalistetatik zazpi izanen dira igandean frontoian. Eskuinaldean ageri den Mendibururen aulkian Xabier Silveira lesakarra eseriko da.

Arg.: Rosa ZOZAIA

Final nagusi honen inguruan, 'Nafarroako Bertsolarien Lagunak' elkarteak bertsolaritzaren inguruko hitzaldi bat antolatu du martxoaren 29rako, arratsaldeko 7etan, zinemaren.

## Karmen Barandarain eta Mertxe Saizar txapelkunak trukean

Martxoaren 18an, larunbata, Aurrera elkarteak urtero antolatzen duen truk txapelketaren finala jokatu zen. Aurtengo irabazleak Karmen Barandarain eta Mertxe Saizar izan ziren, eta bigarrenak Fermin Barriola eta Jon Roda. Ondoren, urtero beza-

la, txapelketan parte hartu zuten trukelariak elkarrekin afaldu zuten. Goi mailako jate-txe bateko modukoa izan zen afaria. Joxe Fermin Lizarraga sukaldariak eta bere laguntzaileak prestatu zuten. Ondoren Xagu eta Xaterek alaitu ziztuzten bildutako guz-

tiak beraien musika eta letra alaiaren bidez. Azkenik, jendea bero bero zegoela eta goizeko 2etan, Leitza plaza, kotxe batzuen argien laguntzaz izugarriko pilota partidua jokatu zen (30 tantora, lehengo usariora). Joxe Antonio Olaetxea eta Jesus Etxeberriak

30-27 irabazi zuten Iñaki Zabaleta eta Joxe Fermin Lizarragaren aurka. Bitartean aforian egondako gehienak eta plazara hurbildutakoak apustu latzak egin zizkioten elkarri. Ea hurrengo urteetan aurtengo umorearekin ospatzen diren txapelketak.

### ttipi-flash

- ◆ **Haurtzaindegian** haurrak apuntatzeko epea apirilaren lehen hasi eta ekainaren 9an bukatzen da. Ikasturtea berri, irailaren 11n hasiko da. Aurtengoan, hileko 2.160 pezetan ordaindu behar dira eta izena emateko haurtzaindegi-ra joan behar da.
- ◆ **Leitza Crossa** Igande honetan, apirilak 2, Leitza Crossaren XVII. edizioa ospatuko da.

**GAZTELU  
ITURGINTZA**

**KALEFAKZIOA**

Elgoien 32  
Tfnoa: 51 00 86 •  
LEITZA



*Esker Onak  
Urtemugak  
Eskelak*

Familiakoren bat edo lagunen bat hiltzen bazaizu  
**ttipi-ttapak**  
eskelak, urteurrenak edo esker onak agertzeko toki bat eskeintzen dizu.  
Deitu gure telefonora:

☎ 63 11 88

**BEINTZAKO  
OSTATUA**  
Tfnoa: 45 00 14  
BEINTZA-LABAIEN

**ttipi-ttapa**

5.950 harpidedun  
20.000 irakurle



**Baztan**

# Herri kirol ekitaldiak burutu dira ikastolaren 25. urtemuga ospatzeko

Iñaki Perurena edo Joxe Bikondoak bezala, ikastolako guraso, irakasle eta ikasle ohiek parte hartu zuten probetan

**JOSEBA IGARABIDE**

Baztan ikastolak bere hogeitabortzgarren urteurrena ospatzen segitzen du. Martxoaren 12an, herri kirolari tar-te bat utzi zioten. Iñaki Perurena harrijaso-tzailea eta Joxe Bikondoak aizkolariak erakustaldi ederra eskeini zuten. Ondotik, ikastolako neska-mutiko, guraso eta ikasle ohien txanda izan zen. Sokatiran, koxkor biltzen eta bertzelako kirolean jotafuego aritu ziren, behitiko argazkian ageri denez.

Bertzalde, igande honetan ikastolen arteko cross txapelketa burutu da Elizondon, ikastolak antolatuta.



## Korrika-9 Baztanera ailegatu zen

Animazio eta giro ederrarekin hainbat jende animatu zen euskararen aldeko kilometroa egitera Korrikaren bederatzigarren edizio honetan. Artesiaga aldetik etorri zen eta Iurrita, Elizondo, Arraioz eta Oronoz-Mugairi inguruetan jendeak ausarki parte hartu zuen. Guztira 38 km. egin ziren Baztanen barna.

Arg.: ONDIKOL



Guraso eta ikasle ohiak koxkor biltzen ere aritu ziren

Arg. MENA

## Ekitaldi antimilitaristak

Baztandarren Biltzarra gazte sailak eta Baztan-Bidasoa eta Zugarramurdiko talde antimilitaristak antolatutako hitzaldiak burutzen ari dira egunotan. Hiru izanen dira, guztira eta ortziral honetan izanen da azkena, gastu militarrei buruzkoa. Larunbatean, apirilak 1, manifa-kalejira aterako da Elizondoko karraketan.

*ttipi-flash*

## ❖ Eskualdeko hiltegia

55 milioi pezetako dirulaguntza eman dio Nafarroako Gobernuak udalari eskualdeko matedero edo hiltegia martxan jartzeko. Ordainketak, gastuak aurkeztearekin batera egingen dira. Lehendabiziko laguntza 3.322.296 pezetakoa izan da.

## ❖ Baserritarako bideak

moldatzeko 25 milioi pezetako dirulaguntza jaso du udalak Nafarroako Gobernutik.

## ❖ Bittor Elizagoien

arraioztarra izanen dugu Baztango ordezkaria Nafarroako bertsolari txapelketaren finalean. Bere txapela defendatuz arituko da.

## ❖ Ia 2 milioi

pezeta gastatuko ditu udalak herrietako karririk konpontzen. Elizondon hasiak dira lan hauekin. Herri honetan zenbait aldaketa izan dira trafikoa arauetan.

**BAZTAN FUNERARIA**

HILKUTXEN ERAKUSKETA ETA SALMENTA • TRASLADOAK  
Jaime Urrutia 53 • ELIZONDO  
Tfnoak: 580924-580814-580373

ARROPA DENDA



**CERVANTES HELVETIA SEGUROS**



Era guzietako aseguroak  
Eska itzazu aurrekontuak  
Juana M. Urrutia

**MENDI OSTATUA**

Santiago 25 - © 580313  
ELIZONDO



**Baztan**

# Karrika salmentarako araudi berria onartu da

Astero izan beharrean, hamabortzean behin egingen da Merkatu Plazan

JOSEBA IGARABIDE

Hainbat gorabehera izan ondotik, azkenean karrika salmentari buruzko araudia edo ordenantza onartu du Baztango udalak. Arau nagusien artean honako hauek daude: hamabortzero izanen da merkadilloa eta lekuz aldatu beharko dute beraien generoa saltzeko karrika saltzaileek. Lehen ortzegunero arkupetan egingen zen merkatu hori, Elizondo erdi-erdian, eta orain Merkatu Plazan jarri beharko dituzte postuak. Ordenantza berriak dioenez, lehentasuna izanen dute bertako saltzaileek postu bat eskuratzeko orduan. Honekin, bertako produktoak gehiago saltzea bultzatu nahi du udalak.

Elizondoko merkatariek idatzi bat igorri zuten udalera duela pare bat hilabete, karrika salmentaren egoeraz kezka eta ondorioz erabakia hartu da.



Hiru almandoztar txapeldun izan ziren Baztango pilota txapelketan. Alde batetik, Iñigo Altzugarai eta Xabier Altzugarai eta berzetik Asier Atxa

## Kultur ekitaldiz betea ailegatuko zaigu apirila

Udaleko Euskara eta Kultur zerbitzuek antolatuta hainbat kultur ekitaldi burutuko dira apirilaren zehar.

Honela, 'Detritus' izeneko margo erakusketa bat zabalik izanen da Arizkunean Kultur Etxean apirilaren 3tik 28ra.

Ordutegia arratsaldeko 7etatik 9etara izanen da. Leku berean, Baztango etxeei eta abizenari buruzko toponimia hitzaldi bat izanen da apirilaren 15ean, arratsaldeko 7,30etatik aitzinera Alberto Aldai Garai adituaren eskutik.

Ekitaldi honek Nafarroako Gobernuako Hizkuntz Politika Departamentuaren laguntza jaso du.


Bertzalde, ortziralero antzerki kafea izanen da Kasinoan gaueko 9,30etatik aitzinera. Martxoaren 31an, Kevin Brooking-ek

'Inside-Out' lana eskeiniko du. Apirilaren 7an Jordi Bertranek 'Poemas Visuales' antzeslana eskeiniko du, apirilaren 14ean Zootrop taldeak 'Groc' lana emanen du eta apirilaren 21ean Iris marlabaristen emanaldia izanen da.

*ttipi-flash*

- ❖ **Arizkongo emakumeek** afaria egin dute larunbat honetan, 60 bat emakume elkartuz.
- ❖ **Iruritako** elizako dorrearen garbiketa lanak martxoaren 23an hasi ziren.
- ❖ **Konzentrazioa** Joan den ortziralera konzentrazioa burutu zen Elizondon Joxi eta Joxearen hilketa salatzeko.
- ❖ **Almandozko** karrika eta etxe bazterrak lurrez eta lohiez estalita segitzen dute Belateko tunelaren lanen ondorioz. Bertako bizilagunen errantetan egoera gero eta penagarriagoa da eta horrelakorik ez omen dute merezi.

**LARRALDEA**



**SAGARDOTEGIA**

Asteartetik ortziralera Betatik aitzinera Larunbata eta besta egunetan zabalik.

© 45 21 21 • LEKAROZ

ERLOJU eta BITXI DENDA

**ARRIETA**

KIROL TROFEOAK

Tfnoa: 580 445 - ELIZONDO

**JATETXEA**

Tfnoa: 580101  
Santiago 1  
ELIZONDO

**Galarza**

**MENDIALDE Jatetxea**

Etxeko gasnak saltzen ditugu

Dantxarinearako bidean, 66. kilometroan

**AMAIUR** • Tfnoa: 45 30 60

**Eskisaroi jatetxea**

Jaime Urrutia, Tfnoa: 580013  
**ELIZONDO**



**SARA**

# Sokoako Stephane Suzanne garaile moto Trial txapelketan

Bertzalde, berrogoi bat saratar eta beratarrek parte hartu zuten Korrikan Senpereko oihanetan barna

MIXEL ETA JACQUELINE

Hirugarren urterako Sarako lezearen inguruetan Akitania eta Euskadiko moto Trial txapelketa martxoaren 5ean jokatu zen. Aski eguraldi txarra izanik ere, 70 bat motozalek parte hartu zuten proba hortan, bainan euriarengaitik antolatzailerek (Trial Club Basque) itzuliak laburtu behar izan zituzten. Hoberenetan Stephane Suzanne (Sokoakoa) lehen atera zen, Imanol Amundarain gipuzkoarraren aintzinean. Oroitarazia izan da hola-ekitaldietatik kanpo Sarako eremuetan ezin dela mendiko moto eta autoz ibili, herriko kontseiluak huren finkatzeko erabakia hartu baitu.



Santa Katalina kaperaren kanpoko obra burutua da jada. Orain, barnea egin beharra

Argazkia: Mixel

## Senperen egin zuten Korrika saratarrek

Martxoaren 18an, 40 bat saratar eta beratarrek beren kilometroa egin zuten Senpereko oihanetan, Marie Pierre Pradère zelarik lekukoaren eremailea.

Denek beren ahale arabera egin zuten lasterkaldi hori, azkarrenek Senpereraino. Froga bat gehiago euskara era ezberdinetan ateara daitekela kanpora.

Zorionez gure hizkuntza ez da hiltzekotan eta itxura guzien arabera gaztetzen ari da. Beraz, lotsarik gabe eman dezaiogun merexi duen lekua

## Pilota solas

Martxoaren 12an Lulusoko Trinketearen Senpereko pilota elkartearen kondu ari diren Sebastien Galardi eta Mikel Gerendiain (Sarako Tabako bulegoko semea) Euskal Herriko txapelkun atera dira Airetik Makea Lekonneko elkarteko gazteen aurka 40 eta 38 irabaziz. Txapelketa hau 'Benjamins' saillekoa zen (13-14 urte). Orain gure bi txapelkunak Frantziako finalerditara heltzen dira. Martxoaren 19an, Euskal Ligako erdifinaletan irabazle atera zauku buruz buru Christophe Mariluz. Gaztetxoetan Errandona eta Juanenak irabazi dute final laurdenetan.



# ZALDUBI

Martin Lizasoain Adansa

Zaldubia Poligonoa • 580562  
IRURITA - BAZTAN

## SUKALDE ETA BAINU MOBLEAK

*Egoki-  
ren banatzaile  
baimendua*



## HERRIKO ETXEO EDANTEGIA

Michel eta Kattin  
Guereidiain

Tfnoa: 59 54 25 19  
64130 SARA



ELIZONDO  
Tel. 58 01 55

# FM FOTO MENA

DONEZTEBE  
Tel. Fax. 45 08 25

ZEURE JAUNARTZE EGUNEKO ARGAZKIAK HOBERENAK  
IZATEA NAHI BADUZU ZATOZ FOTO MENARA

FOTO MENAN EGUN NABARMENAK  
AHAZTEZINAK EGITEN DITUGU

PROFESIONALAK GARA  
ETOR ZAITEZ ETA IKUS EZAZU

ESKATU ORDUA







## Otsailetik aitzinera hasi dira dagoeneko kinto bestak

1944 eta 1946 artean jaiotako berrogeita borts zugarramurdiar eta urdazubitar Koxkan bildu ziren

ALIZIA OLAIZOLA

Hasi dira aurtengo kinto bestak eta ez nolahi gainera

Otsailan hasi ziren eta oraindik ere segitzen dute, herriko jatetxe desberdinetan eginez bazkari eta afariak. Azkeneko afaria, Koxka jatetxean izan zen, 1944tik 1946raino jaiotako Zugarramurdiko eta Urdazubiko gizon-emakumeena, 45 lagun bildu ziren, afaria egin zuten eta ondotik dantzaldia Joxe Angelekin.

### Irratsaioak

Eskolako haurren irratsaioak Xorroxi-



1944-46 bitarte jaiotakoak kinto bestan, Koxkan. Batzuk ageri dira bakarrik, ezker aldeko hiru gazte horien konpainian

nen. Orain dela bizpa-hiru aste, eskolako haurrak irrati saioan aritu

ziren Xorroxin irratiaren eskutik, irakasle- en eta korrespontsala-

ren laguntzarekin. Egun batez ttikienak eta biharamonean gai-

nerakoak izan zuten irratiaren trebatzeko aukera eta inguru osoan aditu ahal izan zen berriak errandakoa. Horrela, neska-mutiko guztiak parte hartu eta ederki pasatu zuten.

### Bi bataio eta heriotza bat

Aurtengo bigarren heriotza izan da, martxoaren 16an Xelainberekoko Eulalia Agirre hil zen, 80 urterekin. Berri hau hobeto gogoratu izanez, aipatuko dugu, San Jose egunean bi bataio izan zirela: Maddi Haltirena eta bertzea Zarautzko batena, Sara Alkorta.



## Kisu-labe elkarteak 'Korrika'ko kilometro bat hartu zuen

Ekainaren 24ko gaupasarako taldeak ezagunak dira; 'Zezette Pouse X' kontzerturako eta 'Sustraia' dantzaldirako

KORO ETA MARGARI

Nahiz eta 'Korrika' herritik urrun pasatu, gure herriko erreprezentazio tiki bat izan zen: Kisu-labe elkarteak kilometro bat hartu zuen Arraiotz eta Mugairiko tartean eta 21eko arratsean hor ibili zen talde bat ahal zuen moduan, batzuk, erdi hatsauntak, doidoia kilometroa kurrituz, bertze batzuk berria Almandozeraino ailegatuz, baina denak euskarari laguntzeko ilusio osoarekin.



### Akelarrerako prestatzen

Aurtengo akelarregaupasak itxura hartzen ari du berriro. Ekainaren 24ean izanen da, ohi denez, eta taldeak hauek dituzue: Kontzerturako 'Zezette Pouse X' (Tuluseko talde bat) eta dantzaldirako 'Sustraia'. Urruñako txaranga ere gau guztia ibiliko da harat-hunatan eta noski, ez dira faltatuko sorgin eta zanpantzarrak.



**EZKONTZAK**

**Miguel Daralar Telletxea Pellejero** eta **M<sup>a</sup> Mercedes Anzizar Iriarte**, Lesakakoak, martxoaren 11an.  
**Jose M<sup>a</sup> Arrillaga Morales** eta **M<sup>a</sup> Dolores Irigoien Garcia**, Donostia eta Berakoa, martxoaren 4ean.

**JAIOTZAK**

**Patrizia Etxegarai Altuna**, Lesakakoa, martxoaren 7an.  
**Maddi Ugalde Elzaurdia**, Berakoa, martxoaren 18an.  
**Mathieu Garbiso**, Sarakoa, martxoaren 12an.  
**André Larroude**, Sarakoa, martxoaren 20an.  
**Xabier Sarratea Urrutia**, Zigakoa, martxoaren 15ean.

**HERIOTZAK**

**Juan Berrueta Goienetxe**, Etxalarakoa, martxoaren 18an, 69 urte.  
**Josefa Agustina Nolasoyas Mutuberria**, Goizuetakoa, martxoaren 15ean, 82 urte.  
**Santiago Ordoki Berasategi**, Berakoa, martxoaren 20an, 63 urte.  
**Mathieu Garbiso**, Sarakoa, martxoaren 12an, bortz egunekoa.  
**Manuel Mariezkurrena**, Elizondon, martxoaren 13an, 92 urte.  
**Juana Irungarai Maia**, Elizondon, martxoaren 19an, 55 urte.  
**Feliciano Sarratea Mendiburu**, Iurritakoa, martxoaren 20an, 80 urte.  
**Miguel Alduntzin Sagastibeltza**, Leitzakoa, martxoaren 15ean, 76 urte.  
**Eulalia Agirre Endara**, Urdazubikoa, martxoaren 16an, 80 urte.

**“San Francisco Javier”  
Eskualdeko Ikastetxe Publikoa**

**E l i z o n d o**

1992. urtean sortutako ikasle eta bertze maila guztietako berrientzat izen emateko epea zabalik dago. Eskaera orriak Eskolako Idazkaritzan hartu eta bete daitezke goizeko 9 t'erdietatik ordu batera eta arratsalde 3etatik 5etara. Izen ematea apirilaren 26ra bitartean izanen da.

Zentru honek dituen aukerak hauek dira:

- a.- Bi adar (bata euskaraz eta gazteleraz bertzea) 3 urtetik 12 arte.
- b.- Musika eta Gorputz Heziketan espezialistak diren irakasleak.
- c.- Hizkuntza modernoaren sarrera (Frantsesa) Lehen Hezkuntzako 2. zikloz geroztik
- d.- Informatika gela ikasleen erabilerarako.
- e.- Psikomotrizitate gela.
- f.- Heziketa berezia behar duten ikasleentzat irakasle espezializatuak eta logopeda
- g.- Ikastetxeko orientatzailea



## BEHARREZKO TELEFONOAK



SOS Nafarroa eta

Urgentziak ..... 088/061

Osasun Zentruak

Elizondo ..... 452367 / 580235

Doneztebe ..... 450300

Lesaka ..... 637428 / 637336

Leitza ..... 510248 / 510573

Nafarroako Ospitaleak

Nafarroako Ospitalea .... 102100

SSko Urgentzi

Zerbitzua ..... 246750

Virgen del Camino

Erresidentzia ..... 109400

Gurutze Gorria ..... 226404

Gipuzkoako Ospitaleak

Irungo ospitalea ..... 614600

Gipuzkoako ospitalea .... 460299

Erresidentzia ..... 453800

Anbulatorioak

Irun ..... 630264 / 621106

Anbulantziak

Oitz ..... 450242 / 450805

DYA

Lesaka

(Larrialdiak) ..... (943) 464622

Doneztebe

(Larrialdiak) ..... 171717

FUNERARIA

Doneztebe ..... 637404

Elizondo ..... 580924

Lesaka ..... 637404

Suhiltzaileak

Ornoz-Mugairi ..... 592255

Garraioak

Bidasotarra ..... 631150

Baztanesa ..... 580129

Leitzarano ..... 515018

Aberiak:

Iberduero ..... 450335 / 450336



## 'Kultur Zurkaitza' izeneko elkarteak zonako kultur taldeak bilduko ditu bere baitan

Joan den ortzegunean aurkezpen publikoa egin zuen Elizondoko Arizkunenea kultur etxean

Baztandarren Biltzarra, Xorroxin irratia, IKA, Langarra, Behinpin eta TTIPI-TTAPA dira momentuz 'Kultur Zurkaitza' izeneko elkarteak bildu diren taldeak. Izan ere, Baztandarren Biltzarrako Mikel Iriartek adierazi zuenez, 'zona mailan euskal kultura eta nortasunaren inguruan lanean dabiltzan talde guzietan zabalik dagoen elkarte baina hau'.

Elkarte hau sortzera bultzatu duten arrazoiaren artean, 'eskualde

mailan euskara eta kultura arlotan dauden eginbeharren aurrean elkar harturik jotzea eta gure barne dinamika trinkotzea' daudela adierazi zuen Langarrrako kidea den Juainas Paul-ek. Zentzu horretan, 'Kultur Zurkaitza' ko partaide diren zenbait taldek urte honetarako prestatua duten programazioa elkarrekin koordinatzeko asmoa agertu dute urtean barrena burutuko diren hainbat aktibitatearen inguruan.

## BERTIZKO PARTZUERGO TURISTIKOA

Behinpin-eko Begoña Iltzarberen hitzetan, 'Partzuergoak duen Garapen Turistikorako Planean ageri denez, bere lehenbiziko helburua da garapen hori patrimonio kulturalaren babesean oinarritzea'.

Zentzu horretan, 'Partzuergo horretan parte hartzeko eskaria formalki egin dugu, uste baitugu guzirik horretan kultur taldeok badugula zer erranik'.

## Bertsolari Txapelketaren finala igande honetan Leitza

Apirilaren 2an, arratsaldeko 5etan burutuko da Amazabal pilotalekuan Nafarroako Bertsolari txapelketaren finala. Bertan arituko dira Elizagoien, Arzallus, Telletxea, Alkat, Silveira, 'Xalbador' eta Arozena aita-alabak

## 'Giltzaren bila' lehiaketaren irabazleak

'Caja Laboral Euskadiko Kutxa'k antolatutako 'Giltzaren bila' lehiaketak baditu lehenbiziko irabazleak. Berako Koro Artieda eta Sunbillako M<sup>a</sup> Jose Rekarte dira lehen hilabeteko saria eskuratu duten bi lagunak, eta bakoitzak bi lagunendako 15.000 pezetako otordua irabazi dute, batek Zalain jatetxean eta bertzeak Eskisaroi jatetxean.

Orrialde honen beheko partean iragartzen da lehiaketa honetan parte hartu nahi duenak zer egin behar duen. Hortaz, oraindik parte hartu ez duzuenoi animo eta irabazleei on dagizuela!

## Giltzaren bila

Lehiaketa

Izen-Deiturak.....

Helbidea.....

Herria..... Tfnoa:.....

Giltza ..... orrialdean dago. Zebazki, zein tokitan? .....

Kupoi hau moztu eta Bera, Doneztebe, Leitza edo Lesakako EUSKADIKO KUTXAREN sukurtsaletan utzi lehenbailehen.

LEHIAKETA HONEN OINARRIAK 151. ALEKO AZKEN ORRIALDEAN AGERTU ZIREN

Aldi honetako jabetzak Almandozko BEOLA eta BERA KO ANSONEA

CAJA LABORAL EUSKADIKO KUTXA

Hurrengo lau hilabeteotan, otsaila, martxo, apirila eta maiatzean, bi lagunendako 8 otordu (bakoitza 15.000 pezetako afari edo bazkaria) zozketatuko dira EUSKADIKO KUTXAREN giltza aurkitu dutenen artean.

Giltza aldizkari honetako edozein tokitan egoten ahal da. Orrialde honetako publizitatekoak ez du balio. Bilatu! eta aukitu duzunean, bete ondoko kupoi edo deitu beheko telefonora.



TELEFONAZ DEITZEKO ORDUTEGIA:  
Asteleheneetik ostiralera goizeko 8etatik gauko 10etara  
Larunbatetan goizeko 8etatik arratsaldeko 3etara

901 - 333444  
Anima zaitetz parte hartzera!!



# Nafarroako Herri Kirol Federazioa Euskadikoaren kide izanen da laister

Euskal Herriko aizkol eta gizon proba txapelketak Nafarroan eginen dira aurtten hemezortzi urteren ondotik

Martxoaren 26an Euskadiko Federazioaren bilera batean Nafarroako herri kirol federazioa bertako kide bezala onartzea erabaki behar zen.

Hasieran, Euskadiko federazioko enjarrera negatiboa bazen ere, aitzineko bileretan somatu denez, baiezkoa emanen dute eta Nafarroako federazioaren helburuetako bat beteko da. Izan ere, Joxelu Retegi lehendakariak adierazi duenez, *“ez duk posible txapelketako finaletan aritzen diren aizkolari nafarrak % 50a izatea eta guk berri, horrelakorik ez antolatzea. Hemezortzi urte daramatzaguz finala antolatu gabe”*.

Orain arte, behin



Abel Castillo eta Joxelu Retegi, Nafarroako herri kirol federazioko idazkaria eta lehendakaria

Argazkia: EGIN

baino gehiagotan eskatua zuen Nafarroako Herri Kirol Federazioak Euskal Herriko aizkolari txapelketaren kanporaketa eta finalak, bainan ezezkoa jasozuten beti. Aurtten sokatira kanporaketa bat ekartzea lortu da, Gipuzkoak utzitakoa, ordea. Badirudi, orain aizkolari txapelketaren finala Nafarroan jokatuko dela eta horrekin batera gizonprobaren finala ere beraie dago. Halere, Nafarroa osoan ez omen dago probaleku egokirik.

Beraz, Nafarroako federazioa gainerakoen eskubide eta betebeharrak guzkiekin sartuko da Euskadiko Federazioan, herrialdeko ordezkari izanen dute, boto eta guzti.

## Berako XXII. pilota txapelketaren finalak San Jose egunez jokatu ziren

Martxoaren 19an, San Jose egunez, burutu ziren Eztegarra pilotalekuan Berako hogeitabigarren pilota txapelketaren finalak. Gure Txokoa elkarteak antolatutako kirol ekitaldi honek larogei bat pilotariaren parte hartzea izan du kategoria ezberdinetan.

Finaleko emaitzak honakoak izan ziren:

**• Gomazko Paleta:**

**2. maila:**

Gonzalez eta Muñozek, 30; Garcia de Dios eta Criadok, 21.

**1. maila:**

Retegi eta Irastorzak, 20; Santamaria eta Dagerrek, 30.

**• Eskuz binaka:**

**Benjaminetan:**

Etxebeste eta Lazkanok, 16; Irazoki eta Larretxeak, 9.

**Alebinetan:**

Aranibar eta Zurbanok, 16; Irastorza eta Irurietak, 15.

**Infantiletan:**

Altzuguren eta Zubietak, 18; Irazoki eta Arretxeak, 14.

Aurtengo txapelketako berrikuntza jube-



Berako XXII. pilota txapelketako finalistak

Arg.; KARMELE

nil mailan izan zen. Bikoteka jokatu beharrean buruz buruko nor-

gehiagokak jokatu zizuten lau t'erdiko koardoren barnean. Fina-

lean, Almandozek 18 eta 13 irabazi zion Saraguetari.



# Euskara aukera ona.



*Hezkuntza elebidunak haurren garapena bulzaten duela eta kultur eta giza ikuspegiak zabaltzen dituela sinetsita, guraso nafar asko beren haurrak euskaraz matrikulatzera animatu dira.*

*¿ZUK ERE EUSKARA AUKERATUKO DUZU?*

Argibide gehiago nahi baduzu, deitu Hezkuntza eta Kultura Departamentuaren Euskara Zerbitzura. Tel. 10 65 87



**Nafarroako  
Gobernua**

Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusia



# AGENDA EGUNEZ EGUN

## ERAKUSKETAK

### ELIZONDO

#### ► Apirilaren 3tik

**28ra** Arizkunenea Kultur etxean 'Detritus' izeneko margo erakusketa 7etatik 9etara.

## KONTZERTUAK

### BERA

#### ► Apirilaren 8an

gaueko 11,30etan Kultur Etxean 'Sorotan Bale'. Sarrera 600 Pta.

## ETXALAR

#### ► Martxoaren 31n

arratseko 10,30etan, 'Los Morochos' (tangoak eta martxa) Etxalarko Herriko Ostatuan.

## ELIZONDO

#### ► Apirilaren 1ean

arratseko 10etan, rock kontzertua Elizondoko Arkupetan 'Beltze' eta 'Noise Hole'. Antolatzaileak: Baztandarren Biltzarrako Gazte Saila eta Baztan-Bidasoa eta Zugarramurdiko Talde Antimilitarista.

## DONEZTEBE

#### ► Martxoaren 31n

arratseko 9,30etan, Mikel Markez eta Jon Bergaretxe Ekaitza Tabernan.

#### ► Apirilaren 2an

arratsaldeko 7,30etan, Koiuntura taldea Ekaitza taberna.

# AGENDA PRAKTIKOA

## ERREZETA



## Alkatrofa beteak



Hilario  
SUKILBIDE  
'Hilarion'  
Jatetxekoa  
•ELGORRIAGA•

### Osagaiak

- 16 alkatrofa eder • 200 gr. txanpinoi • 100 gr. hirugihar • 3 baratxuri pikor • 2 goilarekada irin • litro laurden bat esne • piper beltza • tipula bat •

### Prestatzeko manera

Alkatrofak garbitu kanpoko hostoak kenduz. Irin uretan sartu eta gatza eman ondotik jarri

egosten. Egosi ondotik atera eta buruz beheiti utzi xukatzen. Goilaretxo batekin alkatrofaren bihotza hustu.

Gero, ontzi batean tipula, txanpinoiak eta 50 gr. hirugihar gorritu. Irina, gatza, esnea eta piper beltza erantsi. Betegarri hau prest dagoenean, bete alkatrofak.

Lurrezko ontzi batean oliba olio,

50 gr. hirugihar eta baratxuri xehetuak gorritzen jarri, eta segidan, alkatrofak egosteko erabili den salda erantsi. Guzi horren gainean alkatrofa beteak jarri eta utzi denbora pixka bat egosten. On dagizuela!

## BASERRIA



### ❖ ZERRIKIA ❖

- Zerrikumea (20 kilokoa): 7.700 pzta.
- Zerri gizona (95-100): 190 pzta/kilo
- Zerramak: 130-135 pzta./kilo bizirik.



### ❖ BEHIKIA ❖

- Aretze gizenak:
  - Idixkoak: Pzta./kg. Kanal
- |             |     |
|-------------|-----|
| Extra ..... | 600 |
| 1.koa ..... | 570 |
| 2.koa ..... | 550 |

- Urruxak: Pzta./kg. Kanal
- |             |     |
|-------------|-----|
| Extra ..... | 620 |
| 1.koa ..... | 570 |
| 2.koa ..... | 550 |
- Oharra: Prezio hauek 300-340 Kg. kanalean dauzkaten idixko eta 200-250 kg. dituzten urruzentzako.
- Aretze tikiak (15 egun ingurukoak):
- Nabarrak:** urruzak 25.000 eta idixkoak 38.000 Pzta.  
**Mestizoak:** urruzak 42.000 eta idixkoak 52.000 Pzta.  
**Behi zaharrak:**  
 Behi nabar gizona: 410 Pzta./Kg. Kanal. Behi gorri ona: 480 Pzta./Kg. Kanal.

DATU ITURRIAK: EHNE, ZUBIRIA  
MINDEGIAK, KIWI BAZTAN...



### ❖ FRUTONDOAK ❖

Hiru urteko landare bakoitza

- Bertako sagarrondoa 950.
- Udareondoa 950 pzta.
- Gerezi ondora 1.050 pzta.
- Aranondoa 1.050 pzta.
- Muxika 870 pzta.



### ❖ BARAZKIAK ❖

- Piper txorizero zientoa 800.
- Piper morro zientoa 800.
- Piperminak zientoa 600.

## koxkonta



Sagardotegia  
zabalik

Deitu  
erreserbak  
egiteko

Otsango auzoa, Tfnoak: 627503 / 627519 • LESAKA


## ETXANDI TXOKO erretegia

Bazkari, afari eta  
gosariak

ITUREN  
Tfnoa: 45 04 91



### Instalazio elektrikoaren egoera eta sute arriskua



Etxe eta baserrietan instalazio elektriko onak eduki arren, uste gabeak gerta daitezke, eta ondorioz sute bat hasi.

Izan ere, azken aldiotan komunikabideetan maiz agertzen dira gisa honetako kasuak.

Gomendio orokor gisa, komenigarritzat jotzen da elektrizista edo gai hauetan aditua den teknikoak baserri eta etxeetako instalazio elektrikoak errebisatzea.

Nolanahi ere, arras inportantea da sute bat gertatuko balitz, sua itzaltzeko tresna, extintore eta bitarteko egokiak eskura edukitzea badaezpada ere.

Dena dela, sutea gertatu ondok sute hori zerk eragin ote duen aztertu ohi da, eta horren inguruko datu estadistiko zehatzik ez badago ere, gehienetan instalazio elektriko ez egokiak eta tximistak dira eragilerik inportanteenak.

Zaharrak diren instalazioetan, kableak duen aisla-

**Gomendio orokor gisa, komenigarritzat jotzen da elektrizista batek edo gai hauetan aditua den teknikoak baserri eta etxeetako instalazio elektrikoak errebisatzea. Nolanahi ere, arras inportantea da sute bat gertatuko balitz, sua itzaltzeko tresna eta bitarteko egokiak eskura edukitzea. Ezkerraldeko argazkian ageri denez, hainbat kasutan instalazioaren protekzioa kalibratu gabeko fusibleen bitartez egiten da. Eskuinaldeko argazkian, ordea, egokia den koadro elektrikoa ageri da.**

mendurako gaitasuna nabarmenki txartua egoten da eta ez ditu gutxieneko segurtasun baldintzak betetzen. Hortik sortzen dira 'kortozirkuito' gehienak.

*Datu estadistiko zehatzik ez badago ere, gehienetan instalazio elektriko ez egokiak eta tximistak dira sutearen eragilerik inportanteenak*

Hortaz, kable horiek tubotan sartuak egotea beharrezkoa da, horrela, xagu eta arratoiek ez baitute kable horiek hain erraz hondatu ahal izanen.

Horrekin batera, beharrezkoa da koadro elektrikoa interruptore magnetotermiko, diferentzial eta potentzia limitadoreaz hornitua egotea. Koadro honek, bistako lekuan egon behar du kokatua, edozein momentutan eskuragarria den toki batean.

# AGENDA EGUNEZ EGUN

## BERTSO AFARIA

### ITUREN

► **Apirilaren 1ean** gaueko 9,30etan, Herriko Etxeko ganbaran Xebastian Lizaso eta Xabier Amuririza.

## ANTZERKIA

### ELIZONDO

► **Martxoaren 31n** arratseko 9,30etan Kasinoan Kevin Brooking-en 'Inside out'.

► **Apirilaren 7an** arratseko 9,30etan Kasinoan Jordi Bertran-en 'Poemas Visuales'.

► **Apirilaren 14an** arratseko 9,30etan Kasinoan Zootrop-en 'Groc'.

## GUARDIAKO BOTIKAK

► **Martxoaren 27tik apirilaren 2ra** Etxalar, Sunbilla, Elizondo (Lezaun) eta Goizueta.

► **Apirilaren 3tik 9ra** Arantza, Doneztebe, Irurita, Leitza eta Goizueta.

► **Apirilaren 10tik 16ra** Igantzi, Ituren, Elizondo (Iturralde) eta Goizueta.

► **Apirilaren 17tik 23ra** Lesaka, NARBARTE, Elizondo (Lezaun), Urdazubi eta Goizueta.

# ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA

## LESAKA:

• Egunero, arratsaldeko 4,30etatik 8etara.  
• Asteazkenetan, goizeko 10etatik aitzinera ere bai.  
Non: MALDAERREKA S.L., Bittiria 6, Tfnoa: 63 74 40

## IRUÑA:

• Bulego Zentralean: ARTEKARI, S.L., Tfnoa: 17 55 40  
Non: Rioja Etorbidea 6, Atzekaldea Behean.

- ☞ Langile Autonomoak
- ☞ Nekazariak eta mendi langileak
- ☞ Nominak eta Aseguro Sozialak
- ☞ Lan-kontratutarako laguntzak
- ☞ Enpresa berri ezberdinen sortzea
- ☞ Diru-laguntza ezberdinak
- ☞ Kontabilitateak
- ☞ IVA eta IRPF
- ☞ Errenta aitopenenak
- ☞ Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- ☞ Bideragarritasun planak eta aurrekontuak



ZURE IRAGARKIAK HEMEN AGERTZEKO DEITU (9) 48 - 63 11 88  Ora

## ETXEBIZITZAK

**BERA.** Pisu bat hartuko nuke alkilerrean. ☎ 630557.

**ZUBIETA, AURTIZ edo ITUREN.** Baserri, etxe edo borda bat erosiko genuke. Marisa eta Mikel. ☎ 450325.

**LESAKA.** Pisu bat alokatu nahi dut. ☎ (943) 556427.

**BERA.** 23 m<sup>2</sup>ko bajera salgai Itzea karrikan. ☎ 630272.

**BAZTAN-BIDASOA.** 40.000-60.000 m<sup>2</sup>ko lur eremua erosiko nuke animaliendako ura duena. ☎ 943-464632 (Koldo).

## DENETARIK

**Kartelak,** Buzoiratzeko paperak, Bisita txartelak, Faktura Talonarioak... egiten ditugu. Merke eta azkar. ☎ 631188. Bulego orduetan.

**Komunioko** soina osoa salgai, behin bakarrik erabilia, merke. ☎ 279171 (Baztanen).

**10 konpakto** desagertu dira Eztegara pilotalekutik.

Aurkitu dituenak dei dezalla ☎ 630623ra.

**Eskumuturreko** erlojua galdu dut Lesakako lñausterietan, igandean. Omega markakoa da. Aurkitu duenari sarituko zaio. ☎ 637498 (arratsetan).

**Argazki** kamara bat agertu da Rikardo Baroja eskolako jantokian, Ortzegun Gizen egunean. ☎ 630684.

**200 watioko** amplifikadore salgai, Akai markakoa. 45.000 pezeta. ☎ 452431 (gauetan).

**Oilvetti** ordenagailua salgai, 340 mega eta 8 RAM. Epson LQ 570 impresora ere salgai. 24 orratz ditu. ☎ 452431 (gauetan).

**Baserrirako** makinak salgai: belarra mozteko disko makina, belarra bueltatzekoa, lerrotan jartzekoa eta biltzekoa eta paketatzeko makina. Baita bi behi batera jeitzen dituen ordeñadora ere. ☎ 630871.

## IBILGAILUAK

**Yamaha RD 350** z.k. CL

motoa salgai. ☎ 452136 (arratseko 9etatik aitzine-ra, Angel).

## AZIENDAK

**Bruno de Jura** arrazako zakur bat, hazitarako eskeintzen dut. ☎ 615040.

**Piriniotako Mastina** arrazako zakurra salgai Leitzan. Bi urte egin beharrak. ☎ 610858.

## LANA

**Leitzan bi igeltsero** prest leudeke zure etxeko berrikuntzak egiteko. ☎ 510089 (Mikel).

**Irakasle tituluduna eta EGArekin** urte osoan Beran eta Lesakan klase partikularrak emateko prest. Euskera, OHO, frantsesa, REM... ☎ 630182-637839 (Klarisa).

**Neska bat** eskeintzen da, 21 urtekoa, arratsaldetan haurrak zaintzeko edo etxea garbitzen lan egiteko. Badut esperientzia. Deitu ☎ 450491ra (Ane, 8etatik goiti).

## AGURRAK

**Urdazubiko** Angela Barrenetxeri: Martxoaren 29an zorionak eta egun ederra pasatzea nahi genuke. Kontuz txanpainarekin. Urdazubitik.

**J.E.ri eta X.X.eri** eskertzen dizuegu ostegun gau zoragarriarengatik. Zuek dakizuen bi neskeren partez.

**Elizondoko L.D.ri:** zu zara, dudarik gabe, Baztan-Bidasoako neskarik politena. Nere ametsa zurekin ligatzea da. Elizondoko I.G.ren parte.

**Elizondoko M.J.ri:** zu zara nere auzoko neskarik politena eta espero dut larunbatean Bordatxon ikustea eta gero ikusiko dugu... Elizondoko J.Z.aren aptez.

**Berako Urtzi, Alfontso, Iñigo eta Alexen** partez mu-xu haundi bat Ainhoari.

**Ezkurrako David** Telletxeari: oso ona zaude.

## ttipi-ttapa Ameriketara

Zure senide edo lagun bat Ameriketan bizi eta aldizkaria bidali nahi badiozu, deitu eta informazioa emanen dizugu.

24 aldizkari Ameriketara bidaltzeak 8.000 Pta. balio du.

**948-631188**ra





# BORDATXO

APIRILEan

LARUNBATA **1**

AKELARRE

LARUNBATA **8**

DISKOTEKA

LARUNBATA **15** eta IGANDEA **16**

EGAN BERRIA

LARUNBATA **22**

JOSELV  
ANAYAK

LARUNBATA **29**

DISKOTEKA

IGANDEA **30**

BASAJAUN



BORDATXO



- LARUNBAT GAUEKO BESTA -



# EGB BUKATUTA ZER?

## ORNOZKO

S  
A  
N  
M  
A  
R  
T  
I  
N



E  
S  
K  
O  
L  
A

**20 URTE ATEAK IDEKI ZITUELA**



**HOSTELERIA**

**FORESTALA  
AGROPEKUARIA**



**MEKANIKA  
SOLDADURA**

Hasi: **14 urtetan**. Zona honetan, eskola honek bakarrik "OFIZIOA" EGB egin ondoren (Bi urte)

**Praktikak:** Lantegi edo Enpresatan

**Gure zonan, ez ote dira gehiago bultzatu behar ofizio hauek?**

**Jantokia - Erresidentzia** Tfnoa eta Faxe: 59 20 06